

Herririk Herri |3|

Ohiturari eutsiz, Errebonbillo Eguna ospatuko dabe domekan elorriarrek

Ekonomia |10|

Berrizen gertatutako lan istripua salatzeke mobilizazioak



Berbaz |9|

Irigoien: "Soldadutzarik ez zegoeneko arma alardeak ziren Errebonbilloak"

LZPren alegazinoen erantzunaren gaineko gogoeta

Zaldibar • Lurralde Zati Planari egindako alegazioak erantzun ditu Aldundiak. Zaldibarko ezker abertzaleak erantzun horreen inguruko balorazioa egin dau. Saihesbide barria eta Agarre LZP-tik kanpora itzi ditue.

3

Udalak hitzarmenak lotu ditu Plateruena eta DHKgaz

Durango • Plateruena kafe antzokiagaz bost urterako hitzarmena eta Durangaldeko Herri Komunikabideak elkarreagaz hiru urterakoa onartu ditu Udalak azkeneko udalbatzarrean.

6

Sebastian Fraile "El Charro"-ren flamenko puruena

KULTURA • Gaur Durangoko San Agustinen aurkeztuko dau Sebastian Fraile "El Charro" abeslariak 'Un camino sin final' diskoa: bere ahotsaren eta gitarraren doinuak oinarritutako flamenko purua.

13

Lau kadete gazte pedalei eragiten

KIROLA • 'Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio' izenagaz sortu dabe kadete mailako nesken talde barria. Oraingoz, lau txirrindulari daukiez, eta kopurua handitzea itxaroten dabe. Errepideko eta belodromoko lasterketetan lehiatuko dira.

23

•Durango

Txosnetan antolatuko ditueen ekitaldien barri emon dabe

6

•Izurtza

'Izurtza denon artean' prozesua martxan

4

•Garai

Kultur etxe barria izango den eraikina atontzen hasi dira

2

•Elorrio

Txantxibiriko egitasmoa azaldu deutsee bizilagunei

4

Gipuzkoako zaborrik ez dabe jaso gura Mallabian

> Iruatxetan Gipuzkoako hiri hondakinak hartzearen aurka dago Mallabiko Udala

> Herritarren osasunean eta bizi kalitatean eragingo leukela dinoe

2



Iruatxetako hondakindegia Mallabiko herrigunetik 500 metrora dago, Areitioko mendatean.



KOART

Sukaldeak
Bainugelak
Horma-armairuak



Tel. / Faxa: 94 682 68 79

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Adinekoak zaintzen ditueen senitartekoei lagundu guran

Mendekotasunean bizi diren adineko gehienak etxean egoten dira, eta senitartekoei, sarritan zuzeneko ahaideek —alabak, emazteak, errainak...—, hartzen dabe euren zaintzarako ardura. Horreei laguntza eskaini guran sortu zen Zaindu programa, Durangoko Udala-ren eta Durangoko Merindadearen Amankomunazgoaren eskutik. Izan be, denporagaz luzatzen den zaintzak gehienetan zaintzailearen bizitza baldintzatzen dau, eta bera-engan eragin zuzena izan leike.

Durangaldera zabaldutakoa da adinekoen zaintzaileei begirako Zaindu egitasmoa

Eskualdera zabaldutako Zainduk senideon beharrazanei aurre egin gura deutse, oinarrizko baliabideak indartuz. Horretara, dagoeneko eratutako ekintzetan parte hartzeko izena emon leiteke. Bate-tik, *Norbere burua zaintzen*, mendeko adinekoen zaintzaileei zuzendutako prestakuntza ikastaroa, eta, bestetik, Erlaxazino tailerra eratu ditue. Urriaren 16a arte dago izena emotea, Durangoko Adinekoen Udal Egoitzan. Talde-laguntza psikologikoa be eskaintzen da zaintzaileontzat. ■ A.B.

'Norbere burua zaintzen' prestakuntza ikastaroa eta erlaxazino tailerra antolatu ditue, besteak beste

GARAI

Kultur etxe izango deneko lanak hasi ditue

Joan zen astean hasi zitueen Garai-ko kultur etxea izango den eraikineko lanak. Dagoeneko agerikoa da aldaketa, teilatuaren konponketagaz hasi dira-eta.

Teilatuagaz batera, eraikina-ren aurrealdea margotuko dabe, eta igogailua be egokitzen hasi dira. Horretarako, barruan lanean dabilz. Guztira, 145.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak, eta hiru hilabeteren buruan amaitzea itxaroten dabe. Otea-Loran elkartearen gaineko lokalak dira itxuraldatzen dabilzenak.

Lokal horreetan ludoteka eta KZguneko zerbitzuak ipini gura ditu Udalak. Dena dela, zerbitzu horreek obraren beste fase edo atal batean egokituko dira. ■ M.O.

MALLABIA

Gipuzkoako hiri hondakinak jasotzearen aurka dago Udala

Hondakin horreek Areitioko zabortegira ekarri gura ditueela jakin dau Udalak



Iruatxeta hondakindegia Areitio mendatean eraiki dabe, hirigunetik 500 metrora.

Iruatxetako hondakindegia Gipuzkoako hiri hondakinak jasotzeko proiektuak ezinegonatu sortu dau herritarren artean. Hirigunetik 500 metrora, Areitio-ko mendatean kokatuta dagoen hondakindegia “osasun arazoak” eragin leikezela eta “herritarren bizi kalitatean zeharo eragingo leukela” salatu dau Aitor Loiola alkateak.

Hondakindegia-aren jabe den Betearte enpresak —Ekonor, Urbaser eta Befesa bazkideek osatua— hondakin industrialentzako baimena dauka. Halan be, alkateak jakitera emon dauenez, Gipuzkoako hiri hondakinak isurtzeko proposamena Udalak onartuko leuken jakiteko Ekono-rreko ordezkari batekin batzartu ziren, joan zen irailaren 8an. Alkatearen berbatan, bitartekari horrek “ez dagoelako ezelako arazo ez tekniko ez legalik” jakinarazo deutse: “Hainbat gestino egin direla esan deuskue, eta Jaurilaritzak baimena emongo

Hiri hondakinaren zabortegiak “herritarren osasunean eta bizi kalitatean eragin leikela” azaldu dau Aitor Loiolak

Ekonor enpresa Udalagaz batzartu da, Gipuzkoako hiri hondakinak herrira ekartzeari zer deritzon jakiteko

“Gipuzkoako hondakinak Mallabia, Igorre eta Jatara bidaltzeko aurreakordioa adostuta daukiela dinoe”

leuskiola”. Aurreakordioa “adostuta” ei dago hondakin horreek Mallabiko, Igorreko eta Jatako hondakindegietara botatzeko, udal arduradunek dinoenez.

Gaurgoizean Miren Begoñe Agirre batzarkideak gai horren inguruko azalpenak emon ditu Batzar Nagusien egoitza aurrean.

Udalaren jarrera

“Krisia dela-eta hondakin industrialak gitxitzen dabilzenean ez dogu onartuko hiri hondakinak Mallabiko isurtegiari botatzetik”, dino alkateak. Betearte enpresa pribatua denez, Udalak “exijitzen” deutso “argi eta garbi” esan deila bi aldundiei eta Udalari “isurtegi horretan ez dela hiri hondakinik onartuko”.

Udalak Jaurilaritza eta Aldundiari adierazo deutse, instituzioetan dirurik ez dagoenean AHTa lako makroproiektuak sortu barik, gastatu daiela benetan “guztioi eragiten deuskuen” arazoak konpontzen. ■ J.G.

IURRETA

AUPI elkarteko 10 familia hainbat gai eztabaidatzeko batuko dira, etzi

AUPI, haur-protesi erabiltzaileen elkarteko Euskal Herriko eta inguruko 10 familia batuko dira, domekan, 11:30ean. Urtean behin edo birritan batu ohi dira, Iurretan, oraingoan, Durangoko Jubilatuen Egoitzako gela baten egin arren hitzordua. Bazkaltzeko Iurretan batuko dira. Euskal Herrian 15 familia dira kide.

Beso edo hankan anputazino edo malformazinoak ditueen hirutik hamar urtera arteko umeak batzen ditu AUPIk

Alaba elkarteko kide daukan Unai Viscarret iurretarrak azaldu dauenez AUPIko —beso edo hanketan anputazino edo malformazinoak daukiezen hiru eta hamar urte bitarteko umeak batzen ditu, batez be, normalean protesiak erabiltzen ditueenak— partaideak elkar ezagutzea eta familia barrien barri izatea dabe helburua: “Baita egunerokoan, gure seme-alaben hezkuntza eta protesi-tara egokitze-prozesuan gertatutako gaietaz esperientziak trukatzeko be”. ■ A.B.

MAÑARIA

Udaleko informazino gehigarria etxean, hiru hilean behin

Ikasturte barri honetan aurkeztu dau Udalak kultur ekitaldiei buruzko informazino eta herriko agenda biltzen dituen Udaleko informazino orria; irailean zabaldu dabe lehenengoz herriko postontzietan. Hiru hileko maiztasunagaz etxez etxe zabalduko dabe aurrerantzean Udalean ditueen proiektuen eta albiste-ten barri emoten dauen hiru hilekako argitalpena.

Auzoetan egiten dabilzen edo aurreikusita dagoen lanen aurrekontuak, diru-laguntzen zenbatekoa eta lanen ardura daukien enpresen gaineko informazino... biltzen dau, esaterako, iraileko informazino orriak.

Udal Gobernuaren lehen-tasunak zeintzuk diren ezagutu ahalko dabe hiru hilero herritarrek informazino horregaz. ■ I.E.

Orain arte herriko agenda jasotzen eban orriaren osagarri legez zabalduko dabe hiruhilabetekaria

ZALDIBAR

Lurralde Zati Planari ezker abertzaleak egin eutsazen alegazinoen erantzunak

Agerraldia egin dabe gaur ezker abertzaleko kideek, Aldundiaren erantzunen balorazinoa egiteko

Datozen 16 urteetan Durangaldearen eta Zaldibarren lurralde antolamendua zehaztuz Aldundiak osatu eban Lurralde Zati Planari ezker abertzaleko zaldibartarrek igazko maiztzean aurkeztu eutsiezen alegazinoei emondako erantzunak herriarrei jakinarazteko egin dabe, gaur eguerdian, agerraldia. Ezker abertzalearen aburuz, “agerian geratu da, berriro, proiektu bi dagozela herri honetan: Aldundiarena eta Udalarena bata –pertsonek eta

Zaldibarren lurralde antolamenduari buruzko dozena bat alegazino aurkeztu zitueen herritarrek

Saihesbide barria eta Agarren industrialdea egitea LZPtik kanpora itzi ditu Aldundiak

herrien interesen gainetik enpresa handienak jartzen dituen, eta ezker abertzalearena –herriengarpen orekatua proposatzen daue-na, ongizatea, ingurumena eta kultura ardatz hartzen dituen–.

Zaldibarren ordenazinoari buruzko dozena bat alegazino aurkeztu eutsiezen ezker abertzaleko 30 herritarrek osatutako asanbladak Lurralde Zati Planari, bai formari buruzkoak, bai edukari buruzkoak be. Horreetariko zenbait aintzat hartu ditu Aldundiak.

Saihesbide barria eraikitzea jasotzen eban, besteak beste, Aldundiaren Zati Planak: Goierri auzoa zeharkatuko leukeen “astakeria paisajistikoa” litzakeena geldiarazteko egindako alegazinoa aintzat hartu dau Aldundiak, eta atzera bota, beraz, plan hori.

“Agarreko lurretan 8 hektarea ko industrialdea sortzeko aukera bertan behera iztea be eskatu genduen”, azaldu dabe agerraldian. Alegazinoa onartu, eta baztertu egin dau asmo hori Aldundiak.

Datozen urteetan herrian eraiki ahalko diren etxebizitza kopuruaren muga gehiegizkoa egiten ebala iruditzen jakelako be egin eben alegazinoa herritarrek: alokairuzko etxebizitza sozialei lehentasuna emotea eskatuz.

Balorazino kritikoa

Etxebizitzena lako gaiei buruzko alegazinoak erantzun be ez deusezela egin salatu dabe; “kultur etxea, edo zaharrentzako egoitza bat aurreikustea” kasu. Alderdi paisajistikoei kasu egitea alde positiboa den arren, kritiko baloratu dabe Aldundiaren erantzuna. ■ I.E.

Alderdi paisajistikoei buruzko alegazinoak onartzea ontzat jo arren, ezker abertzalea kritiko da erantzunagaz

Udalak PB1 lursail industrialia erostearen kontra agertu da EA

Herrirako sarbide barrirako lanen hirugarren faseari ekiten Udalak desjabetuko dituen lurrei gehituko jaken Mallabia Industrialdearen jabetzakoa den lursail industrial baten erosketaprosesua bertan behera itzi daiala eskatu dau EAK udalbatzarrean.

Udaleko gainerako alderdien kontrako botoa jaso eban mozinoan, EAK azaltzen dabenez, “bizi dogun krisi garaian halako erosketak egitearen kontra gagoz, une honetan gizarte gaietan inbertitzea beharrezkoago ikusten dogulako”.

Udalak epe luzera ordaindu beharreko zorra izan arren lursailaren erosketagatikoa, EAK ez dau uste 300.000 euroko inbertsinoa suposatuko leuken lursaila erosteko une egokia denik.

Oraindino negoziazio bidean dagoen, eta jagokon batzordean eztabaidatu beharko den erosketak dela erantzun eutsen Udal Gobernuak.

“Krisi garaian halako erosketak egitearen kontra gagoz. Gizarte gaietan inbertitzea behar dogu”

ATXONDO

Arrazola errekatik zabor eta hondakinak kentzeko lanean

Errekaren ibilguan metatutako hondakinak garbitu zitueen bolondresak; kilometro bat inguruko eremuan jardun eben zapatuan Arrazola errekan



Arrazola erreka garbitzeko bolondresen lana.

Elorrioko erreka gaz bat egiten dauen lekutik Apatako igerilekua ingururaino Arrazola erreka- ren ibilgua garbitzen jardun eben, zapatuan, bolondresak: kilometro bat inguruko erreka tartean topatu zitueen askotariko hondakin eta zaborrak batzen emon eben zapatu goiza deialdiari erantzun eutsienek.

Parte-hartze eskasa

Udalak eta Gaztetxeak egindako deialdiari oso herritar gutxi erantzun eutsala onartu dabe, asteen, Udaleko ordezkariak, eta zapatuko Erreka Eguna lako ekimenak antolatzerakoan aurrerantzean halako ekimenetan parte hartzea zelan suspertu pentsatu beharko dabela aurreratu deuskue.

Errekaren garbiketa lanak amaitutakoan, barriz, hamaiketako izan eben parte-hartzaileek Gaztetxean, “gerturatu zireneiesker ona adierazteko eta musutruk bainaherritar guztion onurarako egindako lana aintzat hartu dela zelanbait adierazteko”. ■ I.E.

Jaurlaritzaren onespina jaso dabe Arrazolako babeseko etxeak

Orain urte erdi inguru jakinarazi eutsan Udalak Eusko Jaurlaritzari Arrazola auzoko udaletxea zen eraikinean sortu asmo ditueen errenta sozialerako lau etxebizitzaren proiektuaren barri. Asteon gaiaz galdetu dogunean Udalean azaldu deuskuenez, Gobernu Taldearen etxebizitzak egokitzeko proiektuari oniritzia emon eta 329.000 euroko dirulaguntza hitzeman dau Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak.

Diruz lagunduko dau Jaurlaritzak Arrazolan errenta sozialeko etxebizitzak eraikitzea

Jaurlaritzaren diru-laguntza horregaz, eraikinen egitura dagoeneko egokitua dagoenez, lau etxebizitza hartzeko eraikina barrutik prestatzeko egingo ditue egin beharreko lanak.

Negu honetan hastea eraikinen egokitzet lanean aurreikusit dabe Udalean. Errenta sozialera bideratuko ditueen etxebizitzon zozketa zelan egin be badihardue aztertzen. ■ I.E.

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERAMA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Zirats Ileapaindegia
Ileapaindegi mistoa

ileu moztu, orraztu edo kolorea eman nahi baduzu...

%10 deskontua

Iragarki honekin batera bazatzi!

Andra Mari 3 (Muntzaratz-autobus geltokiararen ondoan) - Abadiño - Tel.: 94 681 71 95

ELORRIO



Kalejira eginda, plazan batuko dira errebonbilloak. K. Aginako

Taberna Ibiltariak girotuko dau Errebonbillo Eguna

12:30etik 14:30era Urarkako eta Kurutziagako tabernetan euskal kankak abestuko ditue

Urriko lehenengo domekan ohi daben legez, etzi Errebonbillo Eguna ospatuko dabe elorriarrek. Errebonbilloen kalejiragaz batera, nobedade moduan, aurtan Taberna Ibiltaria jai-giroa sortzen ibiliko da kaleetan zehar. Koadrila batek euskal kankak abestuko ditu 12:30etik 14:30era, Urarka eta Kurutziaga inguruko tabernetan. Ondoren, arratsaldeko prozesinoaren ondoren plazan be jardungo dabe.

Azpmarratzeko da 13:15ean Durangaldeko txistulariek plazan antolatatu daben txistu kontzertua be. Izan be, estreinakoz ikusi ahaliko da Errebonbilloen martxa txistuz, Elorrioko metal taldeagaz eta Berrio-Otxoa abesbatzagaz lagunduta. Eleder Iturrieta da zuzendari orokorra eta Esther Hernández koruarena.

Gainerakoan, urteroko ohituraren arabera garatuko da eguna. Auzoetatik jaurtitako salbeekin hasiko dabe, goizaldeko 05:00etan. Arratsaldean, Errosarioko Ama Birjinaren prozesinoa babesteko berririo irtengo dabe eta plazara heltzean dantza erakustaldia izango da ikusgai. ■ J.D.

Durangaldeko txistulariek eta Berrio-Otxoa orfeoia kontzertua eskainiko dabe, Udaletxeko plazan, 13:15ean

Arratsaldean Errebonbilloek kalejiran irtengo dabe, eta gero dantzak erakutsiko ditue

Txantxibiriko proiektua erakutsi deutsee bizilagunei

Udaletxean batutako 35 lagunek euren iradokizunak egin zitueen

Txantxibiri kalea berreskuratzeko prestatu daben proiektua bertako bizilagunei erakutsi eta azaldu eutseen udal arduradunek joan zen astean. 35 bat lagun batu ziren Udaletxean eta, oro har, "harrera ona izan dau", Niko Moreno alkatearen arabera. Bizilagunek azalpenak arretaz entzun eta euren iradokizunak emon zitueen. Gobernu Taldearen hurrengo urratsa udalbatzarra osatzen daben alderdiekin ahalik eta akordioak zabalena bilatzea da.

Txantxibiri kalearen hasieran zuhaitzekin, eserlekuekin eta ur osin txiki bategaz atondutako parkea aurreikusi dabe. Jesarle-

ku gehienak elkarri begira dagoz, bata bestearen aurrean edo ondoan; gitxi batzuk kanpora begira ipiniko litzatekez eta bizilagunek denak barrura begira egon daitezzen iradoki dabe. Guria jatetxe ondoko eremua zuhaitzekin eta jesarlekuekin txukunduko dabe.

Horrez gainera, orain asfaltozkoa den bidea kendu eta oinezkoendako egokituko dabe, har-

Kalea oinezkoendako egokitu eta aparkalekuak kenduko ditue; barriak non sortu aztertzen dabilz

lauzekin. Ondorioz, hango aparkalekuak kenduko ditue eta trafikoa berbideratuko dabe. Bizilagunak aparkaleku faltagaitik kezkatuta dagoz. Udala alternatibak aztertzen dabil. Bidea Ibaiondotik bideratuko dabe, eta baleiteke noranzko bakarrek bihurtzea eta han aparkalekuak sortzea.

Bitartean, bihar Txantxibiri kaleko jaiak ospatuko ditue. Goizean txistulariekin kalejiran irtengo dabe. 15:00etan kalean bazkaria egingo dabe. 17:30ean eta 19:00etan igel txapelketa eta patata tortilla txapelketa dagoz. Segidan, Arantza eta Pantxok erromeria eskainiko dabe. ■ J.D.

Kontseiluagaz elkarlanean, hizkuntza-politika egokitzen

Beste 21 udalek legez, hitzarmena sinatu dabe Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluagaz

Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak hizkuntza-politika egokia gauzatzeko lankidetzara hitzarmena sinatu dau Euskal Herriko 22 herrigaz; horreetako bat Elorrio da. Kontseiluak 2005ean udalen hizkuntza-politika

Hizkuntza-politikan dagoen hutsuneak konpontzeko konprometitu dira udalak

tikaren neurketa abiatu eban. Neurketa horren bitartez detektatzen diren hutsuneak konpontzeko konpromisoa hartu dabe hitzarmena sinatu daben udalek.

Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendigurenek hitzarmenaren funtsa elkarlana dela azpimarratu dau: "Herritarrengandik gertuen dagoen administrazioak udalak dira, eta euskararen normalizazioan garrantzia handia daukie. Ondorioz, oso garrantzitsua da udalen eta euskalgintzaren eragile sozialen arteko elkarlana sustatzea". ■ J.D.

IZURTZA

'Izurtza denon artean' prozesua abiatu dabe

Babeseko etxebizitzak eraikitzea ekarriko dauen prozesuan herritarrek parte hartzea bultzatuz

Asteak dira Gobernu Taldeak babes sozialeko etxebizitzak eraiki ahaliko diren Gazte Lokalaren pareko lursailaren jabetza bereganatu ebala iragarri ebala: 1.600 metro koadroko lurretan eraikiko ditue babeseko 15 etxebizitza.

Joan zen astean egin eben 'Izurtza denon artean' ekimenaren lehen batzarra

Lursaila Udalaren jabetzako dela jasotzen dauen hitzarmenaren sinaduragaz hasitako prozesuaren aurrerantzeko pausotan herritarrek parte hartu daie lehenengo deialdia egin

eben, joan zen astean, Jubilatuen Elkarteak, *Izurtza denon artean* deitu daben ekimenaren lehenengo batzarrean.

Orain arte nekazal lurak zirenetan babeseko etxebizitzak eraikitzeke, herriko arau subsidiarioetan aldaketa egitea hurrengo pauso izango dauen proiektuan izurtzarren parte-hartzea bultzatzea da Udalaren helburua. ■ I.E.

Nekazal lur legez kalifikatutako lursailen eraiki ahal izateko aldaketa arau subsidiarioetan

OTXANDIO

Bikan enpresak konponduko dau San Martin ingurua

San Martingo baseliza ingurua konpontzeko lanak esleitu zitueen joan zen astean. Udalak Bikan enpresaren esku itzi dau obra zibileko lanen ardura, Aritz Otxandiano alkateak azaldu dauenez. Sarrera konpontzea eta haizetara dagoen bolatokia atontzea da proiektuaren helburua. Egitasmoa gauzatzeko, enpresak 75.000 euro jasoko ditu.

Inguru hori konpontzerakoan, landare barriak jarriko ditueela jakinarazo dau alkateak. Herriko jaietan pagadi horretan antolatzen daben bazkarian hainbat lagun biltzen denez, inguru hori "txukundu" gura dabe. Ondoko lursaila erosi dau Udalak, pagadia handituz gune zabalagoa edukitzeko. ■ J.G.

UNDARRI BIKE
Bizikleta salmenta eta konponketa.
Bidebarrieta, 5 - baje
48215 IURRETA
94 681 78 08
undarribike@undarribike.com
www.undarribike.com

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andrea Mari Kalea, 8 DURANGO
Tel.: 94 681 50 17

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

EKODEN

HORTZ KLINIKA



Arkotxa, 4 etxabea
DURANGO
Tel. **94 621 78 22**

*Hortz-protezia mugitzen bazaizu,
implanteen bidez hezurrera
finkatzeko tratamenduak jartzen
ditugu zure eskura*



*Ortodontzia-
tratamenduak,
marruskadura
txikiko braqueten
bidez, urte betean*



mutualia

**Itunpeko
Klinika**

% 5 ETIK 10 ERA
A R T E K O
BEHERAPENAK
H O R T Z -
INPLANTEEN
TRATAMENDUETAN

**Zure tratamenduak 12 hilabetetan
finantzatzeko ditugu, interesik gabe**

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

harritu egingo zara

DURANGO

Udalak hitzarmenak lotu ditu 'Anboto' eta Plateruenagaz

Hiru eta bost urteko hitzarmenak onartu ditu udalbatzak, hurrenez hurren

Durangeldeko Herri Komunikabideak eta Durangoko Kafe Antzokiaren Lagunak elkarrekin Udalak sinatuko dituen hitzarmenak onartu ditu udalbatzak. Bost urtekoa izango da azken hori, eta Durangeldeko Herri Komunikabideak elkarrekin sinatu beharrekoa hirukoa. Azkeneko horretan abstenitu egin da Talde Mistoa, horrek be bost urtekoa izan beharko leukela eritzita. PPK bien kontra egin dau, "egungo tes-tuinguruan" 40.000 euro "guztiz eskandaluzko dirutza" delakoan. *Anboto* astekaria doakoa dela eta talde guztiei lekua emoteko

"borondatea" daukala esan arren, Durangoko Kafe Antzokiaren Lagunak kasuan, "irabazizko jardue-ra batez" dihardueela arrazoitu dau PPK.

EB-Berdeek hitzarmenon garrantzia nabarmendu dabe, "kultur zein informazio arloan, euskaraz egindako" lanagaitik. Antzokiak San Agustin kultur guneagaz

40.000 euroko diru-laguntza batzen dabe hitzarmen biek; PPK bakarrik bozkatu dau hitzarmen horreen kontra

koordinatzea "preminazkoa" be baderitze, Aralarrek lez; *Anbotok* euskararen normalizazioan daukan garrantzia nabarmendu dabe azken honek, eta hitzarmena "guztiz justifikatuta" dagoela.

Anbotogaz lotutako baldintzekin "pozik" dago PSE-EE, eta antzokiaren proiektuan bere garaian "sinestu" ebela dino; bere "zati" direla. Kulturgune "erreferentziala" da antzokia Talde Mistoa rentzat, eta *Anbotoren* alde "benetako apustua" egin behar da. "Gure hizkuntza eta kultura babesteko bidea" dira hitzarmenok, EAJren ustez. ■ A.B.

Sanfaustoetarako egitaraua aurkeztu dau Txosna Batzordeak

Urriaren 9tik 17a arte hainbat ekitaldi antolatu ditue Txosnagunean

Barikuan 21:00etan jaurtitako txupinazoagaz abiatuko dabe jai giroa Txosnagunean, eta Sermonds, Tribute to Rip, Gose eta Delirium Tren Ez taldeek eskainiko dabe kontzertua, 23:00etan. Zapatukoa, barriz, Xarma, DSM-5 (Valentzia) eta Emon taldeen txanda izango da. Aurretik, 18:00etan, *Gernikaren Heriotza* kale antzerkia be eskainiko dabe, Balbino Garitaonandia plazan; Euskal Preso eta Iheslarien Eguna izango da hori.

Lor (Elorrio), KOP (Katalunia) eta Gosek (Arrasate) joko dabe txosnetan, besteak beste

Gazte Egunerako —San Fausto bezpera—, herri-bazkaria, gazte olinpiadak, erromeria eta kontzertuak eratu ditue, besteak beste; hilaren 13rako, txosnetako bazkaria eta erreka jaitsiera. Tres 41, The Riff Truckers, Lor, Brakan, Banda Batxoki eta Kop izango dira hurrengo asteburuan. Kiki, Koko eta Moko pailazoak ez eze. ■ A.B.



Urriaren 9an jaurtiko dabe txosnek txupinazoa. Judit Fernandez

PSEk "ezkutakeria" salatu dau trenaren lurperatzean

Egitasmoaren hirigintza hitzarmenaren "zirriborroa" baino ez dagoela dino PSE-EEK

Trenbidea lurperatzeko egitasmoaren "hirigintza hitzarmenaren zirriborroa" baino ez dagoela dino Durangoko PSE-EEK, Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuordeagaz batu ondoren. "Beste alderdiei ezkutatu egin jaken Ibarretxeren Gobernuak sinatu bako eta aurrekontu bako asmoa", salatu dabenez. EAJk, barriz, bai Durangoko sozialistei bai Patxi Lopezen gobernuari "egoerak eskatzen dauen mailan" egoteko erantzun deutse, "hain egitasmo garrantzitsuen alde" lanean hasteko dei eginez.

Rios: "Alkatea, ezkutakeria eta gezurrak esanez, barriro, ardurabakokeria beste alderdiei egozten saiatu da"

Sozialisten bozeroale Pilar Riosen berbatan, "alkatea, gauzak ezkutatu eta gezurrak esanez, barriro saiatu da ardurabakokeria sentsazioa beste talde politikoei egozten. Berak eta EAJk bakarrik —martirrena eginez— jarri dabenean arriskuan uriaren garapenerako egitasmo garrantzitsuena". Ituna egin eta sinatu

ezean "ameskeria hutsa da lur horreetan egingo litzatekela esaten den guztia". Gezurtatu egin dabe Jaurlaritzak "Durangon ez-lako obrarik gerarazo" izana.

Trenalurperatzen badabilzela eta lanak ez direla "inoiz gelditu" dino Riosen: "Pena da alkatea aurreko Jaurlaritzagaz, bere alderdiak gobernatu eban hiru legealdietan, itunik lotzeko gai izan ez izana". Lanok eta libratutako lurra urbanizatzea "lehen-tasuntzat" ei daukie, eta ituna sinatzeko lan egiteko konpromisoa hartu dabe.

"Errudun bila"

Durangoko PSE-EE "errudun bila" baino ez dabil EAJren ustez: "Eta Gobernu Taldeak urteak daroaz, Durango eta inguruarentzat motore turistiko, komertzial eta enpresariala izango den egitasmoarentzat irtenbide bila apustu egiten". Hasieratik gainean direla dino, eta sozialistek "euren alderdiari erantzukizun gehiago" eskatu behar deusiela. ■ A.B.

EAJ: "Hasieratik gabilz lanean gu. Euren alderdiari eskatu behar deusie erantzukizuna"



Garraio eta Hirigintza diputatu izango da Pilar Ardanza

Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Hirigintza diputatu barria dogu Pilar Ardanza. 1989tik 2003a bitartean Durangoko alkate izandakoak Aldundian egindako birmoldaketaren eraginez hartu dau kargu hori. Alkatetza itzi ondoren, Aldundiko Lurralde ekintzako arduradun jardun eban Ardan-

Durangoko alkate izan zen Pilar Ardanza 1989tik 2003a bitarteko legealdietan

zak 2007a bitartean; hain zuzen be, Udal Harremanen zuzendari kargua hartu eban bitartean. Ardura horregaz batera, uriko EAJko Uri Batzarreko lehendakari ardura be hartu eban. ■ A.B.

GALDERA:

Zenbatgarren aldia beteko dau aurten Euskal Liburu eta Disko Azokak?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jabetzerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Bixente Kapanaga, 9 - lurreta edo astekaria@anboto.org helbideotara, Hilaren azken alean agertuko da irabazlea.



Hileko irabazlea: Goiuri Aginako (Durango)



BERRIZ

Inputatu biri zuzendutako laguntza atzera bota dabe

Udalak 3.000 euroko laguntza onartu eutsen epaiketako gastuetarako

Euskal Autonomia Erkidego-ko Justizia Auzitegi Nagusiak berretsi egin dau Auzitegi Nazionalak inputaturik zegoen gazte biri Berrizko Udalak emoteko asmoa zeukan 3.000 euroko laguntza bertan behera iztea. Diru-laguntza horren helburua gazteei epaiketak eragin eutsezen gastuei aurre egiten laguntzea zen. Auzitegi Nazionalak inputaturik zegoen gazte biri Berrizko Udalak emoteko asmoa zeukan 3.000 euroko laguntza bertan behera iztea. Diru-laguntza horren helburua gazteei epaiketak eragin eutsezen gastuei aurre egiten laguntzea zen.

Berrizko Udalak ipinitako erre-kurtsua, aldiz, atzera bota. Epaia-ri ezin jako errekurtsorik ipini. **Etixerat-i diru-laguntza** Bestalde, Etxerategi oraintsu jaso dau aurtengo aurrekontuetan aurreikusitako 3.000 euroko laguntza. Izan be, inork ez eban eskatu, “baina eskaera egin behar dabela jakin ezean, ezinezkoa da egitea”, salatu eban Karmen Amezuaz zinegotziak azken udalbatzarrean. Igaz bardina gertatu zala gogoratu eban. Aurrerantzean edozein elkarteri jakinarazteko konpromisoa hartu eban udalbatzarrek. ■ J.D.

Auzitegi Nazionalak inputatu zituen gazte biri zuzenduta zegoen Udalak emondako diru-laguntza hori

Auzitegi Nagusiaren epaiaren arabera, Udalak berari jagokozen konpetentziak gaindituz jardun eban

ABADIÑO

Alkatearen kalitateko botoagaz onartu dabe Ordenantza Zibikoa

Esparru publikoan “gizalegez” jokatzeari bultzatzeke beharra ikusten dabe

Udalak horretarako atondutako guneetatik kanpora kartelak ipintzea da, iraileko udalbatzarrean, Talde Independientearen alkatearen kalitateko botoagaz onartu daben Ordenantza Zibikoa erregulatzen dauen arloetako bat. Elkarbizitzaren kontrako jarrerak arautzeko, eta kasua balitz zigortzeko “zelanbait egin beharra” zegoela azaltzen dau Udal Gobernuak.

Jeltzaileen abstentzinoa eta ezker abertzaleko zinegotzien kontrako botoa eragin eban ordenantza proposamenak

Abstentitu egin ziren jeltzaileak, eta kontrako bozka emon eban ezker abertzaleko zinegotziak; Basauri bozeroalearen berbetan, “ez delako ordenantza errealista, eta erabilera arbitrarioa egingo dabelako”. Egunerokoan ordenantza zelan betearaziko daben zalantza dauka Basaurik. Udalbatzar berean aurkeztu zitueen trafikoa eta animalien jabetzari erreferentzia egiten deuseen ordenantzak be. Gobernuak aurkeztutako trafikoa ordenantzaren kontra bozkatu eban jeltzaileak eta ezker abertzaleko zinegotziak, eta, aho batez onartu eban, aldiz, animalien jabetza arautzen dauena. ■ I.E.



Trafiko ordenantza baten beharra dago Gobernuaren ustez. I.E.

Babeseko 154 etxebizitza zotz egin ditue, Probalekuan

Luzaroan itxarondako eguna ailegatu jake Muntzaratzen eraikitze-koak diren 154 etxebizitzetako baten jabe egin guran zerrendan izena emon eban herritarrei. Gaurko, urriaren 2rako, egon dira eskatzaileak deituta 12:00etatik aurrera Probalekuan burutu den zozketa publikora.

Babeseko etxebizitza baten jabe egin ahal izateko izena emon eban guztietatik 340 lagun eskariak onartu zitueen zozketarako, eta, beraz, horrekizan dira zozketan hautagai gaur. Muntzaratz auzoko Gantza-Zelaietako babeseko 154 etxebizitzek gaur eguerdiko zozketaren ondoren badukie, beraz, jabea.

Probalekuan 12:00etan izan den zozketara deituak zegoen 340 eskatzaileak

DURANGO

Klasikoen Rallyak harrera oso ona izan dau zaletuen artean



G. Larrinaga

Durango erdigune ebela Bizkaia osoan zehar korritutako IX. Klasikoen Rallyak harrera oso ona izan dau, oraingoan be, zaletuen artean. Landako erakustazokan batutako parte-hartzaileak 40tik gora izan ziren, eta, tartean, ‘Panamera’ lau ateko Porsche-a be aurkeztu eban Klasikoen Rallyan. Izan be, auto enpresa alemaniarrek Durango aukeratu eban Bizkaian bere nobedade barria aurkezteko. Lasterketa hasi bitartean, Landakon izan zen erakusgai autoa. Parte-hartzaileen artean hiru izen nabarmendu ditue: Castor Ortega eta Mari Carmen Diaz valentziarrak (Espainiako txapeldunak) 1979ko Opel Kadet GTagaz, eta Pedro Horrillo txirrindularia VW 1302 autoagaz.

Euskara, gazteak eta parte-hartzea berbagai izango ditue Landakon

Euskara, gazteak eta parte-hartzea hartuko ditue berbagai, urriaren 8an, eguenean, Landako Elkartegian. Horreexek izango dira Elhuyar Aholkularitzaren eskutik antolatutako *EuskaraGAZ parte-hartuz* jardunaldiaren hiru ardatzak. Esparru horreetan izandako bizipenak partekatu gura ditu Elhuyar Aholkularitzak gainerako eragileekin. Esaterako, Berrizen gazteen jarrerak aktibatzeke prozesua gidatu dau Elhuyar Aholkularitzak, eta bertako alkate Javier Azpitartek Udalak horrelakoetan daukan arduraz eta hartu beharreko jokabideaz hausnartuko dau. Euskara-gazte jarrera eta aurreritzez hausnartzen lagundu deutse Deba-ko gazteei be Elhuyarrek, hola euskararen erabilera eragiteko, eta euren esperientzia be azalduko dabe, 09:30ean hasiko diren jardunaldietan. Topaguneko Sonia Perezek be berba egingo dau. Izena emotekoa azken eguna da gaur (94 466 88 16).

BERRIZ

Feminismoari buruzko tailerra

Feminismoan sakontzeko tailerra antolatu dau Udalak ikasturte barriari begira. Emakumeei zuzenduta, horretan sakondu, egindako ekarpenak ezagutu eta interesa sortu daben gaietan hausnarketa eta eztabaida sustatzea izango dabe helburu. Mirian Herbon feminista eta soziologok gidatuko dau, gaur urriaren 2an hasi eta azaroaren 27a arte iraungo dauen ikastaroa. Berrizko Kultur Etxea izango dabe elkargune, barikuetan, 16:30etik 18:30era (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

ABADIÑO

XVIII. Perretxiko Erakustaldia eratu dau Geredixak, asteburuan

Geredixa mikologia elkarteak eratu XVIII. Perretxiko Erakustaldia egingo da, asteburuan, Abadiñoko Traña-Matiena auzoan. Jasotako perretxiko guztiak batuko ditue, zapatuan, 16:30ean, Errota kultur etxean. Ondoren, IZADI natur zientzia elkarteak aztertu eta sailkatuko ditu. Domekan, urriaren 4an, barriz, erakusteta ikusteko aukera izango dabe zaletuek, 11:00etatik aurrera. Errota kultur etxean antolatuko dabe erakusteta hori, Geredixa elkarteok jakin eragin dabenez.

IURRETAKO JAIAK 09



Iban Gorriti



Argazkiak: Ana Dominguez

BERBAZ >

“Errebonbilloen jatorria defentsarako erabiltzen zen arma alardea da”

‘Errebonbilloak: Durangaldeko armen alardeak’ liburua idatzi dau Iñaki Irigoien bilbotarrak

Artxibategietako dokumentu zaharretan arakatuta bakarrik lortu leiteke Errebonbilloek historian izan daben bilakae-rari buruzko gogoeta egitea. Iñaki Irigoienek hango eta hemengo artxi-bo zaharrak ikertu ditu. Lan horren emaitza da gaur bertan, Errebonbillo Egunaren atarian, aurkeztuko dauen liburua.

Zelan sortu da Errebonbilloen liburua idazteko proiektua?

Aspalditik nabil historiari buruzko azterketak egiten, batez be, dantzaren ingurukoak. Errebonbilloei buruz ikertzeko gogoia neukan. Donostian emon neban berbaldi baterako dokumentuak prest neukazen. Artxibategietan ibiltzen nazenez, Gerediaga Elkartegaz bat egin neban Udalaren laguntzagaz liburua kaleratzeko.

Zer da Elorrioko Errebonbilloa?

Errebonbilloa arma alardea da. Beraz, lehenengo eta behin arma alardea zer den azaldu behar da. Bizkaia aintzina zeukan defentsarako sistema da.

Gerrarako zelan antolatzen ziren?

Soldadutzarik ez zegoenez, herri osoa bihurtzen zen soldadu. Alkatea, kapitaina eta gerrarako prestakuntza behar eben. Bizkaiko erregeagaz akordioa zeukien: “Geuk defendatuko dogu Bizkaia, itsasoz be bai, baina hemen ez da kanpoko soldadurik sartuko”.

Entrenatu egiten ziren, orduan.

Herritar bakotzak bere polbora eta eskopeta zeukan. Bandera eta musikari bat zeukan. Urtero armen zerrenda egiten zen bakotzak zer zeukan jakiteko. Zerrenda horreek artxibategietan topatu leitekez. Alardeak lantzean behin egiten zitueen.

Zer sasoitan?

Gatxa da data zehatzak emotea. Dokumentu zaharrenak XIII-XIV. mende-koak dira. Erdi Aro ostean ezarri zen defentsarako sistema hau. Azkeneko Karlistadagaz sistema hau amaitu egin zen. Derrigorrezko soldadutza indarrean jarri eben, eta arma alardea desargertu egin zen.

Nork parte hartzen eban alardean?

Garai batean 19 urtetik 60 urtera arteko gizonezko denek egin behar izaten eben. XVI. mendeko liburu baten agertzen denez handikien semeek alarde bat egin gura eben San Juan egunez. Lehenago, herriko jai eguna horixe zen. Batzuek esaten dabenez, Elorrioko errebonbilloak handik datoz, baina ez dago argi.



Iban Gorriti

“Urteen joan-etorriagaz arma alardeak jai eta folklore mailan gelditu dira herri gehienetan, baita Elorrion be”

Alardea mantendu egin da, baina.

Jauntxoek euren ejertzitza izan gura eben. Haundikien aurrean eta prozesinoetan alardeak egiten jarraitu eben. Jai eta folklore mailan gelditu dira hainbat herritan.

“Arma alardeetan 19 eta 60 urte bitarteko gizonezko denek parte hartu behar izaten eben. Herri guztietan egiten zitueen”

Zer berezitasun dauka Elorriokoak?

Elorriok badauka bere forma zehatza, Irungoak edo Hondarribikoak ez daukana. XVIII. mendeko janzkera hartu dau. Aurrerago beste janzkera bat erabiliko eben. Errosario Santuko proze-

Iñaki Irigoien •

▪ 74 urte daukaz

▪ Errebonbilloei buruzko liburua kaleratu dau

sinoa Lepantoko batailagaz lotuta dago. Errebonbilloak Errosario Santuari egindako prozesinoa izanda, kofradiak antolatzen eban. Egun horretan ez da ez jairik ezta dantzarik be egiten.

Alardeetan emakumeen parte-hartzeak ika-mika sortu dau hainbat herritan.

Lehenago alarde honek bazeukan zentzu bat. Gizonak gerrara joaten ziren. Noiz edo noiz andraren bat be joan zen. Arma zerrendaren baten alargunen baten izena be irakurri izan dot. Orain, baina, folklore eta jai zentzua dauka. Han dagoen gizonezkoren bat gerrara joango litzake arma horreekin? Jai egiteko bai, baina gerra egiteko ez dakit gurako leukien. Andrazkoek aldakuntza itzela izan dabe, eta horrek folklorean be eragin behar dau.

Liburu hau idazteko artxibategietan hainbat ordu emongo zenduen.

Bizkaia guztiko artxiboetan ibili naz. Julio Caro Barojak esaten eban legez, “askok esaten dabe ez dagoela pape-rik. Paper asko dago, baina irakurtze-ko jenterik ez”. Sarritan inork ibili bako paperak izaten ditut esku artean.

Dantzaren inguruan be ikertu dozu.

Bai, dantza beti izan dot gustuko. Euskal Herriko Federazinoko lehendakaria izan nintzen, eta baita Dindirri taldeko zuzendaria be. Bilboko jai- buruzko ikerketa be egin dot. ■ J.G.

EKONOMIA[>]

> BERRIZ



Sindikatuak elkarretaratzeak deitu zitueen, atzo, Berrizen. Irudian ELAk deitutakoa. A. Dominguez

Tornuan harrapatuta hil da 30 urteko langilea Berrizen

Mecanizados Mizar enpresan izan dau lan istripua Abadiñoko beharginak

Mecanizados Mizar enpresan gertatutako lan istripua salatzeke elkarretaratzeak egin zitueen, atzo, CC.OO eta ELAk Berrizen. LABek gaur deitu dau, 12:30ean, Berrizko gasolin-degiaren alboan. Buruan kolpea hartu ondoren, tornuan harrapatuta geratu zen 30 urteko abadiñarra, Osalanek jakitera emon dauenez. Istripua salatzeke Traña-Matienan (Abadiño) be egin eben herenegun elkarretaratzea, ezker abertzaleak deituta.

“Borondatea” eskatu dabe

LABek gogoratu dauenez, Euskal Herrian 64 behargin hil dira aurren; bost, Durangaldean —hiru asteko epean bi—. Istripu horreek guztiak ekidin leitekezela nabarmendu dabe, “beti be, borondate” egonez gero.

Langileak urte bi zeroazen lanean ibilgailuen motorretarako piezak egiten ditueen Berrizko enpresan

Martitzen arratsaldean gertatu zen ezbeharra; buruan kolpatu eta tornuan harrapatuta geratu zen

tea” egonez gero. “Halan be, enpresen helburu nagusia, langilea geroago eta egoera prekarizatuagora eroatea da, eta segurtasun neurriak baztertzeara. Administrazioak, barriz, arazoari errotik heldu barik, beste aldera begiratu dau”.

CC.OOen arabera, 47 dira EAEn hildakoak; irailean sei. Osalanek gertaera eta segurtasun baldintzak argitu arte, makinek eragindako istripu gehienak ekidin leitekezela nabarmendu dau, “homologatutako eta preminazko segurtasun gailuak eduki eta jagoken ebaluazio eta azterketak betez gero”.

Urte bi zeroazen lanean Abadiñoko gazteak ibilgailuen motorretarako piezak egiten dituen enpresan. Hileta elizkizunak atzo egin zitueen. ■ A.B.

> ABADIÑO

Rothenberger enpresako langilea lanean hasi da berriro

Uztailean kaleratze-gutuna jaso aurretiko baldintza beretan lanpostua berreskuratu dau Jon Aitor Ibarzolak. Rothenberger enpresak Abadiñon daukan lantokiaren aurrean kanpaldia egin dau, hamabost egunean, Ibarzolak. Kaleratzeen kontra —uztailaren 22an bost behargin kaleratu zituen enpresak— gose greba be hasi eban, joan zen zapatuan, LABeko ordezkaria denak, enpresa batzordeko beste kide bategaz. Bai kanpaldia bai gose greba bertan behera itzi zituen martitzenean, enpresako zuzendaritzagaz negoziatuta akordioa lotu ondoren.

Hamabi urte —hamar aldi baterako enpresa bitartez— lantegian egin ondoren kaleratu eben, “bape justifikaziorik barik”. Asteotan lankideek be lanuzteak egin ditue kaleratzeok salatzeke. Enpresa sei hileko erregulazio espediente egite-rakoan inor ez kaleratzeko prest zegoen, baina, hurrengo urtebetean be inor ez kaleratzea eskatu dabe, besteak beste. ■ A.B.

> ZORNOTZA

Mobilizazioak hasi ditue berriro Nafarroa zentroan

Lan baldintzak hobetu eta Udalak eskainitako beste zerbitzuetako langileria baldintzak lortzeko akordioa lotu guran, mobilizazioak hasi ditue berriro Nafarroa Eguneke Zentroan —Urgatzi enpresagaz Udalak azpikontratutako langileak—. Udalak ez deutse ezelango erantzunik emon, ezta elkarriketarako aukerarik be, salatu dabe; enpresak elkarriketari ezetz esan deutso. ■ A.B.

■ kolaborazinoa



Javier Meruelo
CNT sindikatua

Gizartea noraezean

Denok daukagu buruan 1929ko kraka, eta krisialdi honetan errepikatzen digute egoera hauek ziklikoak direla: ez dugu arduratu behar, laster sistema honek gauza guztiak bere lekuan utziko ditu eta orduan herritar guztiok normaltasunetara itzuliko gara. Baina, dirudienez krisialdi hau askoz konplexuagoa da. Zientzialari eta ekologista batzuen iritziz, gizakiak ez badu bere jarrera errotik aldatzen problema askorekin topo egingo du; ez etorkizun urrun batean, epe laburragoan baizik.

Finantzaren eta espekulazioaren krisiari eta aldaketa klimatikoari beste bi gehitu beharko dizkiogu. Bata hazkunde demografikoa da, eta bestea lehengaien urritasuna. Azken horrek oso dimentsio kritikoa dauka. Egutero entzuten dugu energia berriagarriak erabiltzen baditugu gure arazo energetiko guztiak konponduko direla, baina ez digute esaten egutero erabiltzen ditugun materialak oso azkar desagertzen ari direla. Adibide dramatiko bat ipintzeko, Tomas Graedel industrialari ekologikoaren ikerketetan, mundu osoak AEBetako biztanle bakoitzak beste kobre kontsumitzen badu, 50 urtetan munduko erreserba guztiak amaituko dira. Txinak eta Indiak hazkunde ikaragarria daukate, eta laster garapen sostengaezin batean aurki daitezke. Baina nortzuk gara gu herrialde horiei aurauak ipintzeko gure etxea ezin badugu gobernatu?

Badirudi komunikabide erraldoiak ez direla egoera honetaz konturatu, edo, hobe esanda, ezkutatzen ari direla, beti bezala bere nagusien interesak defendatuz; Iberdrola, Repsol, BBVA, Santander, eta hainbat eta hainbat otso arkume azalarekin.

Lurreko lehengaiak amaitzen direnean Martera edo beste eguzki sistema batera joango dira, euren induskailuekin uranio, petrolio edo gasa hartzera?

Marko horretan Abiadura Handiko Trena kapitalismo suntsigarriaren sinboloa daukagu Euskal Herrian, etengabeko kontsumoaren suizidioa. Titanen gertatu zen bezala, ez gara ohartzen, pozpozik dantzatzeko dugun bitartean, itsasontzia lurperatzen ari dela?

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

Podología

• Oinetako patologiak
• Neurritza egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Alinara Urreta Jainaga
PODÓLOGA 100. Eragileak

KULTURA[>]

Argazkia: I.E.

AURKEZPENA > KARTELA

Liburuak irudikatzeko, letra beltzak kartel zurian

Lur Merino Erandioko Astrabuduako diseinatzaile eta Arte Ederretan lizentziatutako gaztearen kartela da aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azokaren ikur izateko epaimahaiak hautatu duena. Azokaren 44. edizioko kartelerako, zenbaki hori bera oinarri duen kartela hautatu dute iragarle izateko.

Zuri-beltzean, Merinok aurkezpenean nabarmendu duenez, "krisi ekonomikoaren sasoi honetan, tinta askorik baliatu beharrik barik, produkzioa merketuz", osatu du kartela. Diseinatzaileen hizkeran azalduta, "irudi pregnantea" osatzea izan zuen sortzerakoan asmoa; sinplea baina aldi berean deigarria eta harrigarria.

Liburutegi bateko apalak irudikatzen dituzten lerro beltz horizontalen gainean idatzi ditu diseinatzaile gazteak *Durangoko Euskar Liburu eta Disko Azoka, 2009ko abenduaren 4tik 8ra* letrak. Azokaren aurtengo lema dioen moduan *Zure eskura* dauden liburuak dirudite letrak.


Iaz baino 20 gehiago

Lur Merinok ere bigarrenaz aurkeztu du kartela Azokako lehiaketara, eta nabaria da diseinuan diharduten lagunek oso aintzat hartzen dutela Gerediaga elkarteak antolatzen duen lehiaketa: 55 artistek bidali dituzte euren sorkuntzak aurtengoa; iaz baino 20 lan gehiago jaso dituzte oraingoan. ■ I.E.

Egileak irudi sinple eta aldi berean deigarria sortzea izan du helburu

12 Shinova taldearen zuzenekoa

Estampida argentinarragaz eta Durangoko Bonus Track taldeagaz konpartituko dute rock eta metal gaia bihar Shinova taldeko musikariek.



13

Sebastian Fraile "El Charro"

Gaur du Sebastian Fraile durangarrak 'Un camino sin final' disko berriaren aurkezpena San Agustinen. Flamenko doinuz beteko du aretoa.

MUSIKA > KONTZERTUA

'Latidos' diskoa aurkeztuko du Shinova taldeak Plateruenean

Durangoko Plateruenean bihar gauerako antolatu duten metal musikaren gauean arituko da udan 'Latidos' diskoa atera zuen **Shinova** taldea

Durango Bonnus Track eta Argentinako Estampida taldeekin batera, urriaren 3rako Plateruenean antolatu duten rock eta metal doinuaren gauean aurkeztuko ditu Shinova taldeak bere lehenengo diskoa.

Iaz sortutako Shinova taldean gazteak izanagatik eskualdeko musika taldeetan esperientzia duten musikariak elkartu dira; besteak beste, eskualdeko The Kraven, Muted, Nabari edo Seiurte taldeetan aritutakoak.

Ondarroako Santos Records estudioetan grabatu, Madrileko Cuben nahastu eta Argentinan masterizatu dituzten diskoko kantak joko dituzte bihar gaueko, zuzenekoan. Durangaldeko boskotearen diskoan jasotako hamai-

ka kantak zuzenean entzunaraziko dituzte Plateruenean; *El peso de los días*, *Cicatrices* edo *Necio* izeneko abestiak, kasurako. Taldeko abeslariaren ahots indartsua eta lau musikarien gitarra, baxu eta baterien doinu energikoek bete-

ko dute antzokia. Shinovagaz oholtza konpartitzen, heavy musikaren nazioarteko ordezkari ezaguna den Argentinako Estampida eta Durangon iaz sortutako Bonnus Track taldea ere arituko dira. ■ I.E.

Hamaika kanta bildu ditu Shinovak 'Latidos' deitu duen diskoan



MUSIKA > LEHIAKETA

Bogoroditsie abesbatza nagusi Guadalajaran

Abesbatzen Guadalajarako VI. Lehiaketako sari guztiak irabazi ditu Durangoko Bogoroditsiek

Irailaren 26an Guadalajaran izan den Abesbatzen VI. Lehiaketatik sariagaz bueltatu dira Durangoko Bogoroditsie abesbatzako lagunak. Zehatzago esateko, abesbatza onenaren sari nagusia ez ezik, beste aitorpen bi ere jaso dituzte Guadalajarako lehiaketan: Buero Vallejo antzokia betetzen zuten entzuleen botoek emandako saria, eta zuzendari onenaren saria (Ion Ugarrizari) ekarri dituzte Bogoroditsie taldekoek Durangora.

Sari nagusia, entzuleek emana eta zuzendari onenarena lortu dituzte

Lehiaketako parte-hartzaile guztiek derrigor kantatu beharreko Albert Alcarazen *Aetas Carmen Melodiae* kantaz gainera, *Ama Namin*, *Roussignol de bois sauvage* eta *With a lily in your hand* eta *Bogoroditsie Devo, raduysia*

obrak kantatu zituzten joan zen asteburuan abeslari durangarrek.

Durangoko taldeaz gainera, Sevillako Maese Rodrigo eta Madrilgo Ganbera abesbatzek hartu dute lehiaketan parte, baina esandako moduan, durangarrek eskuratu dituzte sari guztiak.

Urriko emanaldiak

Silboberri txistu elkarteak antolaturiko kontzertuan parte hartzea du Bogoroditsie Abesbatzak agendako hurrengo hitzordua: Durangon urriaren 24an izango da emanaldia, eta hurrengo egunean Urretxun dute hitzordua. Guadalajarako lehiaketako sari guztiak lortzea ahalbidetu dieten kantak abestuko dituzte bertan. ■ I.E.

Durangon eta Urretxun ditu Bogoroditsiek urriko emanaldiak

LITERATURA > PROGRAMAZIOA

Durangoko Udal Bibliotekak prest dauka ikasturte berriko egitaraua

Poesia tailerra eta haur, gazte zein helduentzako irakurle txokoak dira ikasturte honetan irakurzaletasuna bultzatzea helburu duten ekimenak

Azkeneko ikasturteetan Durangoko Udal Bibliotekan aukeran izan ditugun Poesia Tailerrari eta helduentzako Irakurleen Txokoa-ri gehituko zaion ekimen berri bat estreinatuko dute ikasturte honetan: haur eta gazteentzako irakurle txoko bi sortuko dituzte datozen hilabeteetarako.

Hileroko hitzordua

Hileko bigarren asteazketan batuko dira adinaren arabera antolatutako talde bitan banatuko dituzten parte-hartzaileak. Zortzi eta hamar urte artekoen saioak urriaren 14an, 17:00etan, abiatuko dituzte; Juan Kruz Igerabideren *Durango*, *Durango* lana hartuko dute dinamizatzaile baten laguntzagaz aztertze.

Hamar eta hamabi urte artekoentzako ere, idazle beraren, Juan Kruz Igerabideren *Botoi bat bezala* lana hautatu dute, eta urriaren 14an ekingo diote gazteek ere liburutegiko ikasturteari; kasu honetan, 18:00etan.

GEURE DURANGALDEA



Asier Iturriaga
Platerueneko kudeatzailea

Badator Udagoiena!

Irailaren bukaerak uda joan dela eta kurtso barri baten hasiera datorrela gogorarazten deusku. Atzean geratu jakuz oporrak, hondartza eta bizikleta egunak, edozein herriko jaietako parrandak etabar. Kurtso barriagaz batera, irailean hain zuzen be, ospatu dau Barbaro elkarteak bere 20. urteurrena. Ez da gitxi 20 urtez Durangon euskararen alde lanean ibili izana. Zorionak, Barbaro!

Era berean, Plateruena kafe antzokiak be 5 urte beteko ditu urrian, eta urteurren ospakizun berezirik egingo ez dauen arren, ikuskizun eta eskaintza barriak eskainiko doguz urritik aurrera. Ohiko egitarauaz gainera, AIKoren asteroko dantza tailerra izango dogu urritik aurrera, bigarren urtez jarraian; urri amaieran emanaldi benetan bereziaz gozatu ahal izango dogu. Gainera, Xabier Lete izango da gurean, olerkiz eta musikaz osatutako ikuskizun berezia eskaintzeko. Urtean zehar eskainiko dituen emanaldi bakanetako bat izango da Plateruenekoa.

Baina bada bereziki ilusio handiz prestatu dogun eskaintza barri bat. Kantuaren Kantoia deritzon zikloa estreinatuko dogu. Euskal kantagileek eta kantazaleek elkar ezagutzeko gunea izango da. Lau asteko ziklo batean, kazetari batek bideratuta, kantagile gonbidatuaren ibilbidearen, kanten, erreferentzien, lan egiteko moduaren, kezken... berri ezagutuko dogu. Kantuaren Kantoia berbaldi musikatua izango da: kantagileak zuzenean joko ditu berak aukeraturiko zenbait kanta (berak sortuak nahiz inorenak), eta kanta horreek izango dira elkarriketarako abiapuntu. Anari, Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren eta Petti izango dira ziklo honen lehenengo edizioko gonbidatuak, eta Juan Hernandez kazetari durangarrak gidatuko ditu berbaldiok. Laster izango dozue honen guztiaren barri zehatzago. Bitartean, heldu gogoz udagoienari!

Haur eta gazteentzako irakurle txoko bi sortuko dituzte aurtan

Juan Kruz Igerabideren liburu bi izango dituzte urriaren 14an

Mantendu egingo dituzte Poesia Tailerra eta Irakurleen Txokoa

Durangoko Udal Biblioteka herritarrentzako kultur erreferente bihurtzea eta irakurzaletasuna suspertzea dituzte helburu nagusi liburutegiko kudeatzaileek. Horregatik, aurretik arrakasta izan duten ekimenak ere mantenduko dituzte 2009-2010 ikasturtean.

Biblioteka, liburuak maileguan hartzeko eta irakurketarako espazioa izateaz gainera, elkarriketa eta hartu-emanetarako gunea ere bilakatzeko, Poesia Tailerra eta helduentzako Irakurleen Txokoa izango dira datozen hileetan.

Juan Ramon Makuso poetak zuzentzen duen Poesia Tailerra urriaren 5ean hasiko da, 19:00etan, eta hainbat garaitako poeta eta poesiari buruz aritzeko hitzordua izango da hamabostero.

Sarah Waters-en *Falsa identidad* gomendatuko dute helduen gaztelerazko Irakurleen Txokoa, eta Juanjo Olasagarreren *Ezinezko mailetak* liburu hautatu dute, bestalde, helduen euskarazko taldean aztertze. ■ I.E.

MUSIKA> ELKARRIZKETA

Zelan hasizinen flamenkoan?

Txikitan, ardiekin, behiekin... abeltzantzan laguntzen jarduten neban Salamanca jaioterrian, eta lan horretan sarritan topatzen neban kantatzeko tartea. Baina gero, 14 urte gaz Atau-nera etorri ginen bizitzera, eta ahaztu egin jatazen txikitan abesten nituen koplak. 18 urte egin nituenean ailegatu nintzen Durangora.

Zergaitik itzi zenuen?

Batetik, modu horretako musikarik ez zelako lehen hemen entzuten, eta, bestetik, entseguak egiteko be espazio aproposabehar dozulako. Salamanca nengoenean, zelai zabale-tangura neban moduan aritzen nintzen kantuan eta garasika, baina hemen edozein lekutan ezin zeinke egin. Durangoko Andaluziako zentroan egin eus-tien gero lekua.

“Salamanca,
abeltzantzan
jarduten neban
bitartean kantatzen
neban”

Zelan berreskuratu zenduen kantatzeko ohitura?

Oso modu bitxian gertatu zen, egia esan; 1988an, laneko gaueko txandatik bueltan Elorrioko gasolindegian gelditu eta garai haretan hiltzorian zegoen Camaron de la Islaren kaseta erosi neban. Harrapatu egin ninduen bere kantakerak, eta, apurka-apurka, besteak beste, Miguel Hernandez eta Antonio Machado olerkarien poesia be irakurtzen hasi nintzen flamenkoari buruz sortu jatan jakinmina asetzen. Irakurriz eta flamenko asko entzunda joan nintzen kultura flamenkoan sartzen.

“Joan zen Aste
Santuan grabatu
neban diskoa,
Durangoko Rock Izar
eskolan”

“Flamenkoaren
alderdi
oinarrizkoenaren
eta puruenaren isla
da nire diskoan
batu dodana”

“Camaronen kantakerak harrapatu eta hurreratu ninduen flamenkora”

Durangoko Orfeoiko kide da **Sebastian Fraile “El Charro”**. Solfeorik ikasi ez arren, abestea dau bizikera. Ataunen bizi zenean, aita Barandiaranek itzitako hiztegiekin ikasi eban Salamanca jaiotakoak euskaraz, baina galdu egin eban gero. Flamenkoa euskaraz kantatzea dauela etorkizuneko erronketako bat azaldu deusku. Horren aurretik, gaur 22:00etan, San Agustinen du disko berriko kantak herrikideei aurkezteko hitzordua



Judit Fernandez

Zelan sortu da diskoa grabatzeko aukera?

Esan deutsudan moduan, 1988tik ibili naz, zelanbait, neure burua flamenkoaren inguruan janzten. Durangoko Rock Izar eskolan grabatu neban Aste Santuan. Zelanbait neure kapritxo izan da diskoa, eta familiak be bultzatu nau kantak oroigarri moduan gordetzera.

Zelakoa da gaur gauean aurkeztuko dozun diskoa?

Flamenko kantakera oinarritzko edo puruenaren bilduma da; besteak beste, *granaina*, *petenera*, *seguidilla*, *soleá*, eta *tiento* doinuak dira grabatu ditudanak. Abestietako letrak antzina-ko testuetatik hartutakoak dira, eta Antonio Chacón, Antonio Mairena, José Meneses eta Manolo Caracol moduko abes-lariek lehenago kantutakoak. Flamenkoan barneratzeko entzun eta irakurri ditudaneta-tik hamar kanta bildu ditut nik nire *Un camino sin final* diskoan.

Kanta lehiaketa askotan hartzen dozu parte.

Espainian Murtzia, Bartzelona, Merida, Olivenza, Carmona, Mairena eta Santanderreko jaialdi eta lehiaketetan irabazi ditut sariak. Mundu hau benetan gogoko nebala oihartu eta buru-belarri bertan jarduteko erabakia hartu neban. Zaletasuna mantentzen eta prestatuta egoten laguntzen dabe lehiaketek.

Zelako emanaldia prestatu dozu aurkezpenerako?

Bihotz osoagaz prestatu dot emanaldia; hasieran, De Norte a Sur taldearen dantza taldearen saio txiki bat izango da, eta ondoren bi partetan banatutako nire kantaldia izango da. Gitarrista batek lagunduko nau.

Nor da lagunduko zaituengitarra-jotzailea?

Oso era berezian ezagutu neban Kordobako Antoniok joko dau gitarra flamenkoa. Auzokoak gara. Logelan nengoela, gitarra

“Gustukoen ditudan
hamar kanta batu
ditut ‘Un camino sin
final’ disko berrian”

De Norte a Sur
dantza taldearen
emanaldia izango da
kantaldia hasi
aurretik

“Flamenko asko
entzun eta poesia
asko irakurriz hasi
nintzen musika mota
hau sentitzen”

flamenko bat entzun neban hormaren bestaldean. Goizean altxatu eta ateajo neutsan. “Bar-katu enbarazu egin badeutsut” esan eustan, eta nik ezetz, gura nebana kontzertuan nigaz jo zeiala zela esan neutsan.

Zuk lantzen dozuna lako flamenko purua baino beste estilo batzuekin fusionatutakoa entzuten da gehiago.

Bai, oso gatxa da hemen flamenko purua entzutea. Oso momentu konkretuetan eta gehienetan Andaluziako zentro kulturaletatik deitzen ditue flamenko ikus-kizunak. Orain urte batzuk niri gertatu jatan moduan Elorrioko Arriola lako leku bateko deia jasotzea salbuespena da, gaur egun arte behintzat. Oso kasu bereziak izaten dira. Flamenkoa beste erritmo batzuekin nahastea oso gatz gertatzen jat. Txikitatik dakidazen koplak bule-riaren neurrian emotea da egiten dodanetik berritzaileena izan leitekena. ■ I.E.

LITERATURA > LEHIAKETA

Irakurzaletasuna bultzatzeko lehiaketa Elorrioko Liburutegian

Urrian hasita abendura bitarteko lehiaketan arituko dira 18 urtera arteko parte-hartzaileak aukeratutako liburuak irakurri eta fitxak betetzen

Bakoitzak aukeratutako hiru liburu irakurtzea eta irakurritakoaren gainean Liburutegian prestatu dituzten fitxak betetzea dira Elorrioko Liburutegian hamabosgarren urtez antolatuko duten lehiaketan parte hartzeko baldintza nagusiak.

Irakurle bakoitzak bidalitako fitxen kopurua zein fitxetan jasotako iruzkinen kalitatea hartuko dituzte kontuan lehiaketako sariak banatzeko. Irakurle bakoitzari dagokion adin-tarteko liburuak izan beharko du aukeratutakoak.

Irakurketa Lehiaketa martxan dagoen hamabost urteetan 18 urtetik beherako ehunka elorriarrrek hartu izan dutela parte nabarmendu dute antolatzaileek, eta belaunaldi oso baten irakurzale-

Irakurleek bidalitako iruzkinen kalitatearen araberako sariaketa

tasuna bultzatzen lagundu duen ekimena dela, urte bukaeran Liburutegian egingo duten sari banaketagaz amaitutzat emango duten lehiaketa hau. ■ I.E.



PINTURA > LEHIAKETA

Durango Hiria margo lehiaketako sariak

Urriaren 5ean da Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatutako lehiaketaren sari-ematea

San Fausto jaien aurrerapena izaten den Durango Hiria margo lehiaketaren IX. edizioa da aurtengoa. Aurreratu dutenez, urriaren 5ean 18:00etan izango da sari banaketa ekitaldia. Sari banaketa ospatuko den lekuan, Ezkurdiko erakusketa aretoan, egun horretan hasi eta 18ra arte ikusgai izango den erakusketa antolatuko dute parte-hartzaile guztien lanak erakusteko.

Gai eta teknika librean egingadako artelanak aurkezteko, irailaren 29tik urriaren 2a arteko epea izan dute margolariek. Lehiaketara aurkeztutako lanak Ezkurdiko udal aretoan ikusgai izateaz gainera, lau sariak zer artistentzat izango diren erabakiko du Artisten Elkarteak izendatutako epaimahaiak: 600 euroko lehenengoa, 450eko bigarre-

na, 300eko hirugarrena eta Durangoko parte-hartzaileen artean aukeratutakoarentzako 300 euroko saria daude jokoan.

Urriaren 5ean 18:00etan den sari banaketara eta erakusketa-aren inauguraziora gonbidatu dituzte herritarrak. ■ I.E.

Irailaren 29tik urriaren 2a artekoa zen lanak aurkezteko epea

Urriaren 5ean da sari banaketa ekitaldia, arratsaldeko 18:00etan

ANTZERKIA > EMANALDIA

Kabareta, Arriolako ikasturte hasierarako

El Gato Negro antzerki talde madrildarraren 'Cabaré de caricia y puntapié', urriaren 9rako

Boris Vian kantari frantsesaren lana oinarri duen antzezlan, Madrileko El Gato Negro taldeak ekoizitakoa, da Elorrioko kultur-gunearen 2009-2010 ikasturterako programazioa abiatzeko hautatu dutena. Urriaren 9an da emanaldia, 22:00etan.

Vian abeslariaren hamar abesti dira ikuskizunaren ardatz, eta ukitu komikoa eta gizartearekiko kritikoa ere baduen dantza eta antzerki ikuskizuna da horrela osatzen dutena. Ikuskizunaren izenburuagaz adierazten denez, bizitzaren alderdi biak, laztana baina baita ostikada ere, jasotzen dituen egoerak erakusten dituzte ikuskizunean.

Boris Vian abeslari frantsesaren 10 abesti dira lanaren ardatz

Carmen Barrantes eta Jorge Uson aktoreek osatzen dute bikotea

Musikak, zelan ez, berebiziko esangura du *Cabaré de caricia y puntapié* ikuskizunean. Carmen Barrantes eta Jorge Uson aktoreek osatzen duten bikotea da Arriolako oholtzan ikasturte berriko egitaraua zabalduko duena.

Madrileko El Gato Negro antzerki taldea, ikasturtea abiatzeko

Antzerkia, musika eta dantza zein Arriola antzokian ohikoak diren zinema eta ikus-entzunezkoen emanaldiak izango ditugu datozen asteetan aukeran. Urriaren 30 eta 31n izango da, esaterako, 24 ordu digitaletan. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



URRIAK 3 22:00etan
ESTAMPIDA (Arg) + SHINOVA + BONUS TRACK
KONTZERTUA.




URRIAK 6 19:30ean
DANTZALDI IBILTARIA
Dantza tailerraren 1.eguna. AIKO TALDEA
DANTZA TAILERRA.



URRIAK 9 22:00etan
DJ SERGIO VEGA (Txitxarro) +
Etxeko DJak: Ruben Kostas & Iker Undersound
VI GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: TBA.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



UN CAMINO SIN FINAL

Sebastian Fraileren lehen diskoaren aurkezpena

Urriak 2 • 22:00etan



PERCUTIENDO

Amores group perkusioa familientzat

Urriak 4 • 18:00etan

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA



BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA EUSKO JAURLARITZAREN ALTZAIRUEN RENOVE PLANARI ATXIKITAKO ETXEA



ZER DA?

Planak sukaldeko eta etxeko higigarriak erosteko laguntzak eskaintzen ditu, baita atxikitutako dendetan denetarik argiztapen, ezarkin eta koltxoia erosteko ere.

ZENBAT DIRURI BURUZ ARI GARA?

Diru-laguntza egindako erosketen osotasunaren % 25koa izango da, eta gehienez 1.000 eurukoa etxeko.

NOIZ ARTE IRAUNGO DU RENOVE PLANAK?

Irailaren 15etik abenduaren 31 arte, edo diru-funtsa xahutu arte.

Gutxieneko erosketa 300 eurokoa izango da.

ETA BAUTISTAN, GAINERA:

DOAKO FINANTZAZIOA 12 HILABETEAN 2010EAN HASI ORDAINTZEN

PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE

ALTZARIGILE IZARRA KANPAINA
RENOVE PLANAREKIN BATERAGARRIA DA
OPARI-TALOIAK EDO ZUZENEKO
DESKONTUAK

Sukaldeak – Bainugelak – Logelak – Tapizeria – Gortinak – Storeak – Alfonbrak – Ohe-jantziak – Argiztapena



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO

Santa Cruz poligonoa, 1 zk LAUDIO (A-68 autopista ondoan) Uribitarte poligonoa, 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)
BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA: 94 672 77 00

Zarate eta Elexpe Eragileak, familiako eraikuntza



Durangaldean erreferentzia den enpresa sustatzailea da Zarate eta Elexpe. Higiezinaren sektorean lan sendoa egiten dau egoitza lurretan daukan enpresak, eta belaunaldi aldaketak egitasmo barriak ekarri ditu beragaz, aurrekoen filosofia mantenduz. Etorkizuna altxatzeko, harria ipinita dago.

1960an hasi eban ibilbidea enpresak, eta urtez urte sendotzen joan den proiektua da

Etxebizitzaren kudeaketa, sustapena eta eraikuntza ditulan esparru Zarate eta Elexpe enpresak. 1960an hasi eban ibilbidea bi kide ekin-taileraren eskutik, eta urtez urte sendotzen joan den proiektua da. Belaunaldi aldaketa emon barri, etorkizunean lan erizpide berak markatuz jarraitzea dau helburu; zabaltzeko asmoa be badaukie, lurralde eta ekintzen aniztasunaren aldetik.

Hasieran lan txikiak eta beste enpresentzako kontratak egiten zituen. Baina etxebizitzako blokeak eraikitzeke ametsalortu egin eben, irtotasunez egindako lanari esker bezeroen konfiantza irabazita. 1980ko hamarkadaren hasierako eraikuntzaren krisialdi probagatza izan zen, eta gain-

ditu ebenean enpresa moduan erabat sendotu zen. Lan filosofiak bi oinarri daukaz: giza-talde kualifikatua eta produktuaren kudeaketa integrala. Bi lehentasunok betetzeko helburua bezeroaren eskakizunei modu osoan erantzutea da, konfiantzan eta profesionaltasunean oinarritutako hartu-emonaren ezarritak.

Kudeaketa integrala

Kalitateko produktuak lortzeko oinarria kudeaketa integrala dela uste dabe. Proiektu bako-tza modu partikularrean lantzen dabe: lurrak erostea bidegarritasuna aztertuz, proiektua zehaztea, kontu handiz gauzatzea eta sustapenak zuzenean bezeroen artean merkaturatzea.

Herentzia ona bermea izan arren, ospea eta konfiantza kalitateko lanagaz eta printzipio etikoe-kin irabazten direla uste dabe Zarate eta Elexpekoek. Hori dela-eta, enpresa osatzen dauen giza kapitalaren prestakuntzaren aldeko apustu irmoa egiten dabe.

Konpromisoa

Zarate eta Elexperen konpromisoa enpresa soiletik harago doa, inguruneagazko gizarte ardura bere gain hartzen dabe-eta. Eskualdeak eta bere biztanleek honaino heltzea ahalbideratu dabe, eta eskerra adierazotea neurritzat daukie. Kirol klubak babesten ditu enpresa honek, klub horreen ikuspegia lehia hutsaz eta norberaren arrakastaz harago doalako. Era berean, ingurukoak izaera altruista eta lankideaz kutsatu gura ditue, baztertuenean alde lan egiten daben erakundeen bitartez.

Egitasmo asko sortu ditu Zarate eta Elexpe Eragileak enpresak, eta aurrerantzean be halan izango da. Orain, lurreta eta Eloreko promozinoetan bete-betean sartuta dago.

Lan filosofiak bi oinarri daukaz: giza talde kualifikatua eta kudeaketa integrala

Euren konpromisoa enpresa soiletik harago doa, inguruagazko gizarte ardura euren gain hartuz



Iurretan, etxebizitzak esku-eskura

Iurretan, herriko plazan eskaintza berezia dauka Zarate eta Elexpek. Plaza inguruan altxatutako Eli-xaldeko etxe-bloke barriak. Hona datu batzuk:

ONDO KOMUNIKATUTA

- Eskola, frontoia eta liburutegitik hur.
- Udaletxea alboan.
- Durangotik gertu.

JOLASGUNEA

- Umeentzako prestaturiko parkea, kulunka eta gainerakoekin.
- Berdegunea.

Plazaren birmoldaketa

Iurretako proiektuan, etxebizitzetaz gainera, plaza birmoldatzea be sartzen da. Dagoeneko itxura barria dauka plazak, eta ingurune guztiak, Elixalde deiturikoak, asko irabazi dau horri esker. Toki oso atsegina da etxea edukitzeko. Bertako etxe barriak eskuratzeko aukera dago.

ZONALDE EROSOA

- Plaza handitu egin da.
- Leku oso lasaia.
- Umeentzako segurua.
- Ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bi zubi barri eraiki dira.
- Aparkaleku erosoak.



Elorrioko eskaintza: pisuak eta bi bizitzako adosatuak

Durungaldean erreferentzia eta esperientzia handia daukan enpresa da Zarate eta Elexpe. Konpromiso sozialaren ondorioz, herritarrei aukera onak eskaintzea helburu dabe, eta Elorrion be hori gertatzen da. Iurretakoagaz batera, gaur egun Elorrioko eskaintzak hartu dau indarra. Hona hemen ezaugarriak:

PISUAK

- 1, 2 edo 3 gelakoak, ganbaragaz.
- Garaje itxia, ate mekanizatuagaz.
- Plazatik gertu.

BI BIZITZAKO ADOSATUAK

- Partzela eta garajeagaz.
- Isolamenduen kalitatea bermaturik.
- Bizilekuaren diseinuan parte hartzeko aukera.
- Neurria moldaturiko finantziarazina.

Eskaintzak bertatik bertara ezagutu ahal izateko, obrak dirauen bitartean bisita gidatuak antolatzen dira. Izan be, bezeroagazko arreta erizpide garrantzitsua da Zarate eta Elexpe eragileentzat. Informazino gehiago gura izanez gero:



BIXENTE KAPANAGA, 19 BEHEA • 48215 IURRETA • TELEFONOA: 94 681 66 73 • WEB: www.zarateyelexpe.biz

ERITZIA[>]

Gutunak @

Esne ekoizleen alde

Durungaldean esne ekoizleen kopurua ez da dozenara ailegatzen, orain dela urte batzuk ehunka zirenean. Gaur egun esne sektoreak bizi duen krisia kontuan hartuta, urte gutxi barru pare batek jarraitzen badute, ez da gutxi izango. Egoera hau Europa osoan errepikatzen da, eta Europar Batasunak egungo politika aldatzen ez badu, laster esne ekoizleenak egin du.

EHNE sindikatuaren ustez, hala ere, badago aukerarik egungo esne-ekoizle kopurua mantentzeko. Horretarako beharrezkoa da ekoizpena kontrolatzea, baserritarrei ordaindutako prezioa igotzea eta ekoizpena hobeto banatzea.

Europar esne-ekoizpena gutxitu egin behar da. Hori bai, ekoizpen kuota handia dutenek murriztu behar dute euren ekoizpena, ez baserritar txikiek. Momentu honetan Europako agintariek esne-kuotak desagerrarazi nahi dituzte. Akats larria litzateke hori. Liberalizazioaren bidean jarraitu beharrean, ekoizpenari mugak jarri behar zaizkio. Ekoizpenaren kontrolak ekoizleen errenta duina ziurtatzea ahalbidetuko du. Prezio duinaren bidean, era berean, ekoizpen-kuotak ondo banatu behar dira ekoizleen artean. Horretaz gain, nola ez, industriak gutxieneko prezioak ordaindu behar ditu.

Esportazioak desagertzea behar-beharrezkoa da, dumpingak hegoaldeko herrialdeetako ekonomiak suntsitzen dituelako. Europak esnekiak derrigor inportatu behar izatea agintzen duen OMCaren akordioa ere bertan behera geratu behar da. Elikagaiak lokalak izan behar dira: bertan ekoiztu, bertan kontsumitzea.

Ekoizpen ereduari dagokionean, lurrari lotutako esnegintza bultzatu behar da. Inportatutako sojarekiko dependentziatik askatu eta baserriko larreetako belarrean oinarritu behar da esne ekoizpena.

Iñigo Etxebarria - EHNE sindikatua

Klik batean @



Kilotik gorako tomateak Arriandin

Lurretan lur emankorrak dagozela emoten dau bidali deuskuen argazki hau ikusita. Jose Murgoiñobeña durangarrak Arriandiko bere soloan batutako 1.050 gramotako sekulako tomateak da argazki horretan ikusgai doguna. Aupa Jose! Hainbat entsalada prestatzeko lain izango dozu.

kolaborazinoa



Gotzone Barandika
UPV/EHUko irakaslea

Energia nuklearra

Euskal Herriko Unibertsitateak Uda Ikastaroak antolatzen ditu urtero, eta aurtengoetan energia berriztagarriei buruzko bat egon da. Hartara berataratu ginen batzuk teknologia horien aldeko argudio sendoen bila genbiltzan. Arrazoiak sinpleak da: petrolioaren alternatiba gisa proposatzen digutena energia nuklearra da, eta horren aldekoek beti erabiltzen dute errentagarritasunaren planteamendu ekonomikoa. Beraz, energia berriztagarriak ganoraz defendatzeko, konbentzitzeko moduko datuak jaso eta erabili behar dira.

Energia sortzeko fusio nuklearraren teknologia oso eraginkorra denez, ekonomikoki errentagarria da dudarik gabe. Non dago arazoa, bada? Prozesu osoa kontrolatuta egonez gero, arazorik ez omen dago, baina nukleo erradiaktiboen desintegrazio-prozesua kontrolatik kanpo geratzen bada, zer gerta daiteke? Ingurumenera emititzen den erradiazioa energia altu-altukoa denez, izaki bizidun guztiguztien ADNaren erasotzen du, eta mutazio horiek belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira. Gainera, erradiazioaren iturriak sakabanatuta gertatzen dira, eta hainbatetan desintegrazio-prozesuek urteetan dira.

Zentral nuklearretan segurtasun-neurri guztiak hartuta ere, inork ezin du bermatu istripurik ez dela egongo. Bermeak ez dira ehuneko ehunekoak, sekula ere ez, eta energia nuklearrarekin ezin dugu arrisku hori onartu, ondorioak izugarri grabeak baitira. Hori nahikoa da errentagarritasunaren kontua beste modu batean ebaluatzeko, eta energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko, behingoz.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo
fotodenuntzia helarazteko
helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durungaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko urriaren 2a - 8. urtea - 345 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

anboto
komunikabideak



durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu
94 623 25 23 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

AGENDA

>ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urriaren 2an, 17:30ean

‘MICROGLOPHONE’

Clown estilorik nabarmenena erakusten dau Kataluniatik datorren Katraskacia taldeak azkenengo lan honetan. Sorpresak, musika, umorea eta irudimena dakarre Ton Muntané eta Dj Mau aktoreek. Edozein adinetakoentzat aproposa da ‘Microglophone’ antzezlan. Kutxa beltz batetik aterako dira ia ordubeteko saiorako osagai guztiak. Berrizko Kultur Etxean dute hitzordua jarrita clown ikuskizunen jarraitzaileek.

urriko agenda



Urriak 2-3-4 • San Migel Jaiak.

Urriak 3-4-10-11-12 • Iurreta Txirrindulari Elkartea 09:00 Iurretatik Iurretara. (65-85km)

Urriak 5 • Iurretako Herri Biblioteka-Gizarte Ongizatea 18:15 Munduko emakumeen literatu tailerraren hasiera (astelehenetan)

Urriak 7 • Gizarte ongizatea 17:00-18:30 Emakumezkoen sexualitatea: Berba egin daigun ikastaroaren hasiera (eguaztenetan)

Urriak 9 • Umeentzako ipuin kontalariak 17:30 (3 urtetik gorakoak) Alaitz Muro eta Agurtzane Villate. Herri Bibliotekan

Urriak 16 • Haurtxoen irakurketa Kluba Bibliotekan 17:30-18:30 3 urtetatik 6 urtetara

IURRETAKO UDALA



URRIA

BERRIZKO UDALA

Urriak 9

Antzerki musikala: “Mejor tarde que nunca”. Kultur etxea. 22:00.

Urriak 16

Haur antzerkia: “Baserriko saltsa”. Kultur etxea. 17:30.

Urriak 17

Barriketaldia: “El conquistador del fin del mundo”. Julian lantzi, Jose Luis Korta eta Eneritz Iturriaga. Kultur etxea. 19:30.

Urriak 23

Dantza: “De.Dos”. Kultur etxea. 22:00.

Urriak 25

• Berriz-Oiz X. Igoera. Elizondon irteera 9:00etan. Izena-ematea 3€, esklerosi anizkoitza elkarterako.
• Abentura hitzaldia: “Kolorado piraguan”. Txus Ruiz de Erentxun. Kultur etxea. 19:00.

Urriak 30

Haur antzerkia: “Anita Ilezikin”. Txintxaun kolektiboa. Kultur etxea. 17:30.

Urriak 31

Abentura hitzaldia: “Bizitza munduan zehar”. Zigor Gonzalez. Kultur etxea. 19:00

Filmeak

Urriak 4 – Mapa de los sonidos de Tokio (19:00)
Urriak 11 – Up (17:00)
Urriak 18 – Frozen river (19:00)
Urriak 25 – Ice Age 3 (17:00)

Erakusketak

Irailak 25- urriak 11: Koldo Gisasola (argazkiak)
Urriak 16- azaroak 1: Fernando de Vicente (margoak)

Santiagoko Bidea

Urriak 17-18 asteburua. Iruñea-Gares-Lizarrak Izena emateko Kiroldegian, urriaren 9ra ordutako.



ANTZERKIA

BERRIZ

» ‘Microglophone’ (Katraskacia). Urriaren 2an, 17:30ean, Kultur Etxean.

ERMUA

» ‘Rock Comedy Show’ (Elliot-Belgika), urriaren 2an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.



BERBALDIA

ELORRIO

» Errebonbilloen liburuaren aurkezpena (Iñaki Irigoien), urriaren 2an, 19:30ean, Udaletxeko pleno aretoan.



ZORNOTZA

» Ondarearen Europako Jardunaldiak: ‘Amorebieta-Etxanoko baselizak’ (Angel Larrea), urriaren 7an, 19:30ean Zelaia zentroan; 8an, Pausaren eskutik ikus-entzunezkoa.



BESTEAK

ABADIÑO

» Ibilbide gidatua Eskillarreko Begira, urriaren 3an, 09:30etik 15:00era, Urkiolako santutegitik irtenda (harriaren albotik). Kopurua mugatua da (94 681 41 55).

ELORRIO

» Errebonbillo Eguna: goizetik salbak auzoetan, urriaren 4an. Egunean zehar, taberna ibiltaria kaleetan. Berrio-Otxoa orfeoiairen eta Durangaldeko txistularien kontzertua, 13:30ean, Gernikako Arbola plazan; 17:00etan, dantzak.

ZALDIBAR

» Gaztelekuaren inaugurazioa (12-16 urte). Urriaren 2, 3 eta 4an, 16:30etik 20:30era. Zapatublai, urriaren 3an, 16:00etatik 19:00etara, herri ikastetxean.

» Mendi irteera: Aiztondo (1.007m). Urriaren 4an, 08:00etan, Udaletxeko plazatik urtenda.

» Postal lehiaketaren sari banaketa. Urriaren 8an, 19:00etan, Udal Liburutegian.

ZORNOTZA

» Herri-martxa, urriaren 2an, 08:30ean, Parke Botanikoan.

» ‘Zex’ sexu aholkularitza, urriaren 2an, 16:00etatik 20:00etara, Zelaia zentroan. ‘Zuk zeuk’ drogomenpekotasun aholkularitza, hilaren 3an, 18:00etatik 19:00etara.

» Gazte Diskoteka, urriaren 3an, 20:00etatik 23:00etara.



DEIAK

DURANGO

» San Faustoetako nagusiendako bazkaria. Txartelak urriaren 1etik aurrera hartu leitekez, Adinekoen Udaleko Egoitzan (Astarloa, 1-2). Bazkaria urriaren 13an izango da, Landako erakustazokan.

» Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andereak elkartea).

» Odola emoteko aukera, eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaila elkarrekin deituta.



ERAKUSKETA

BERRIZ

» Koldo Gisasolaren argazkiak. Urriaren 11 bitartean, Kultur Etxean.



DURANGO

» ‘Lau oinak emanda Bertsolaritzari lau begirada’, urriaren 5etik 18a artean, San Agustin kulturgunean. Euskara zerbitzuak antolatuta.

ERMUA

» Ertibil Bizkaia: Bizkaiko artista gazteak, urriaren 4a bitartean, Lobiano kulturgunean.

» ‘Garapenerako berdintasuna: emakumeak aurrera egiten badu, munduak ere bai’, urriaren 5etik 18a arte, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» ‘Urdaibai’ (Unesco Etxea), urriaren 16a bitartean, Zelaia zentroan.



IKASTAROAK

ABADIÑO

» ‘Sexuaz hitzegingo?’. Urriaren 23tik abenduaren 18a arte,

barikuetan, 18:00etatik 21:00etara. Aurkezpena, urriaren 2an, 18:00etan, Pinoko lokaletan. Izena emoteko Errota edo Txanpota kultur etxeetan.

DURANGO

» Dantza tailerra, urriaren 6an hasita, martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Plateruenean. AIKO taldeak emongo ditu eskolak.

» Adinekoendako urte guztiko eta ikastaro laburrak.

Urrian hasiko dira. Adinekoen Udal Egoitzara jo leiteke (94 620 03 21 / 94 603 00 00 luzapena: 1710).



» Adineko zuzendutako tailer psikosoziala, urriaren 20tik ekainaren 29a bitartean, martitzen eta egueneroan, 10:00etatik 12:00etara, Adinekoen Udal Egoitzan. Izena emotea urriaren 9a artean (94 620 03 21).

DURANGALDEA

» Unibertsitateko Kultur Aisialdia: ‘La política exterior de Estados Unidos en un mundo en cambio’ (Josu Otxoa) + ‘El cine a través de la psicología: un cruce infinito de caminos’ (Bittor Arnaiz). Durangaldeko Mankomunitateko Adinekoen Sailak Deustuko Unibertsitateagaz eratuta. Izena emon leiteke (94 620 05 46).

» Erretzeari izteko ikastaroak, Durangaldeko Mankomunitateko Drogomenpekotasun Prebentzinorako Sailak eratuta. Urriaren 5ean hasiko dira, goizez eta arratsaldez (94 620 05 20 / Askatasun Etorbidea 11, Durango).

DURANGO

» Euskalduntzearen 4. maila (4. HEren titulu baliokidea), urriaren 6an hasita, AEK-Abarrak euskaltegian: 180 ordu eta 10 tutoretza saio. Izen-emotea urriaren 5a arte (94 681 73 49).

ELORRIO

» Dantza ikastaroak: dantza modernoa, sabel dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak. Urrian hasita, 10:00etatik 12:00etara, Iturri kultur etxean (94 603 20 32).



IPUINAK

ERMUA

» Lur Korta ipuin kontalaria, urriaren 3an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

JAIK

IURRETA

Sanmigelak

- » Pin-pon txapelketa, urriaren 2an, 16:00etan, Aita San Migel plazan. Patxin eta Potxin pailazoak, 17:00etan, Amilburun. I.E.B. emakumeen kadete taldearen aurkezpena, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean, eta 18:45ean ‘Azur&Asmar’ pelikula. Kaleetan, Sugarri fanfarrea, 19:00etan, eta, Aita San Migel plazan, 20:30ean, tortilla txapelketa; 22:00etan, probak: gizonak, motordun ibilgailuak eta astoa, eta, 23:30ean, Lahiotz taldea.
- » Kalejira eta poteoa, urriaren 3an, 12:00etan, eta 14:30ean herri-bazkaria, Aita San Migel plazan (mozorrotuta). Break dance ikuskizuna, 18:00etan. IX. Bizikleta Festa, 17:00etan, Olaburuko errotondan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Igor Elortza, Amets Arzallus, Maialen Arzallus, Jon Maia eta Miren Amuriza, 22:00etan, Olaburu frontoian. Gai-jartzailea Maite Berriozabal. Luhartz taldea, gauerdian, plazan.
- » XI. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, urriaren 4an, 10:00etatik 15:00etara, Andaparapen. Dantzari, agintari eta herritarren kalejira, 10:00etan, Montoitik Aita San Migel plazaraino. Meza nagusia, 11:00etan, eta, ondoren, Dantzari Dantza; 13:30ean, igel txapelketa, eta entsalada txapelketan izena emotea (osagaiak eroan behar dira).
- » ‘Pablo Berasaluze VIII’ Uda Binakako Eskupilota Txapelketako finalak, urriaren 4an, 13:00ean. Partidu profesionala: Berasaluze VIII-Ibai Zabala // Olaizola II-Apraiz, 17:00etan. Dantzak: Andra Mari (Galdakao) + Mikel Deuna (lurreta),



18:30ean, Aita San Migel plazan. Gero jaietako errifen zozketa, eta, 20:30ean herri-afaria Kaixo taldeak alaituta; 22:00etan, jaiak agurtzeko bertsoak.

LEHIAKETA

BERRIZ

- » I. Eskultura Lehiaketa. Proiektua azaroaren 2tik 27a artean aurkeztu leike, Kultur Etxean. Sari bakarra: 18.000 euro (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGO

- » ‘Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkia’ lehiaketa. Urriaren 30a arte helerazo leitekez Andragunera. Uriko eskoletako haur eta gazteak eta kanpoko eskoletako durangarrek parte hartu leikie

(13-18 urte); 18 urtetik gorako sailean edonork. 100 eta 200 euro arteko liburu sortak emongo ditue; 18 urtetik gorakoen sailean 600 euro (kontaketa laburretan) eta 300 euroko (olerkietan) sariak.

LITERATURA

IURRETA

- » Munduko emakumeen literatur tailerra. Urriaren 5etik, 18:15ean, astelehenero, Udal Liburutegian.

MUSIKA

DURANGO

- » Estampida (Argentina) + Shinova + Bonus Track. Urriaren 3an, 22:00etan, Plateruenean.
- » Sebastian Fraile “El Charro”,

urriaren 2an, 22:00etan, San Agustin kulturgunean. ‘Percutiendo’ (Amores Grup de Percussió-Valentzia). Hilaren 4an, 18:00etan.



ZINEKLUBA

BERRIZ

- » ‘Mapa de los sonidos de Tokio’, urriaren 4an, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

- » La Caja de Pandora, urriaren 8an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ZORNOTZA

- » ‘The visitor’, urriaren 6an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Urriaren 3an, 22:00etan

ESTAMPIDA +
BONUS TRACK + SHINOVA,
PLATERUENEAN

Metal doinuak izango dira nagusi, asteburuan, Plateruena kafe antzokian. Argentinatik datozen metal doinuak, hain zuzen be. Estampidak eskainiko dau kontzertua beste behin be, kafe antokiko oholitza gainean, taldearen jarraitzaileen gozamenerako. 1995ean sortutako boskoteak gogoz berotuko dau Platerueneko giroa, halan be, ez da eurena bakarrik izango ardura hori. Izan be, Durangaldeko talde bi be izango dira bertan: Berrizko Shinova eta Durangoko Bonustrack taldeek joko dabe Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
San
Valentin
sangriento
(3D)
Zuzendaria:
Patrick
Lussier
barikua 2:
22:00
zapatua 3: 19:30 / 22:30
domeka 4: 19:30
astelehena 5: 22:00
martitzena 6: 20:00



Oceanworld (3D)
barikua 2: 19:00
domeka 4: 22:30
astelehena 5:19:00

Umeendako zinema

Los mundos de
Coraline (3D)
zapatua 3: 17:00
domeka 4: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Millenium:
Los
hombres
que no
amaban
a las
mujeres
Zuzendaria:
N. Arden Oplev
zapatua 3: 22:30
domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa
Millenium:
Los hombres que no
amaban a las mujeres
Zuzendaria: N. Arden Oplev
zapatua 3: 22:00
domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:00

Umeendako zinema

Cher Amí
domeka 4: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 2
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Zapatua, 3
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / Sagastizabal / San Roma / De Diego / Unamunzaga / Balenziaga (Durango)
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Domeka, 4
09:00-09:00
• Sagastizabal
(Askatasun Et. 19 - Durango)
Astelehena, 5
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Martitzena, 6
09:00-09:00
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Eguaztena, 7
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Eguena, 8
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....	112
DYA	94 620 28 00
Gurutze Gorria	94 681 09 49
Osakidetza	94 600 72 00
Ertzaintza	94 466 93 00
Suhiltzaileak	112
GARRAIOAK	
Euskotren	902 54 32 10
Durango	94 681 02 32
Bizkaibus	94 448 40 80
Pesa	902 10 12 10
Continental Auto	945 286 466
TAXIAK	
Abadiño	946 814 470
Matiena	606 459 988
Durango Geltokia.....	946 811 001
Goco Tour	946 202 860
Tele Taxi	944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..	944 269 026
Elorrio Geltokia	946 820 040
J.L. Uriarte	670 402 002
I. Estebez	670 678 273
M Galeano.....	946 582 854
lurreta	946 201 565
Taxi auzunea	688 618 690

UDALAK

Abadiño	94 621 55 30
Atxondo	94 682 10 09
Berriz	94 682 45 84
Durango	94 603 00 00
Elorrio	94 658 27 12
Garai	94 681 63 93
lurreta	94 620 12 00
Izurtza	94 681 35 48
Mallabia	943 17 14 61
Mañaria	94 681 89 98
Otxandio	945 45 00 20
Zaldibar	94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño	94 621 55 33
Berriz	94 682 40 36
Durango	94 603 00 10
Elorrio	94 682 02 18
lurreta	94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola	94 658 31 92
San Agustin	94 603 00 21
Zornotza Aretoa	94 630 01 68
Gazte informazioa	94 603 00 30

Txanporta KE	94 620 36 47
Errota KE	94 466 94 16
Gorabide	94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.....	94 415 07 51
Nekazal bulegoa	94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..	94 681 74 86
Butanoa (UME).....	94 681 08 77
Araztegia	94 620 28 00
Foru Ogasuna.....	94 681 07 42
INEM Durango	94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz	94 681 49 58
Epaitegiak.....	94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua	
Astola	94 620 29 29
Igerilekua	
Atxondo	94 623 14 38
Berriz	94 682 43 74
Durango	
(Landako).....	94 621 51 30
Durango	
(Tabira)	94 621 51 50
Elorrio	94 682 10 27
Zaldibar	94 682 73 74

EGURALDIA

11

20°

BARIKUA

Hodei ugari izango dogu. Goizean, euri langarra egin leike. Arratsaldean eguraldiak argitzera egingo dau. Hodeitza arinduz joango da, eta eguzki une gehiago izango dogu. Iparraldeko haizea ibiliko da.

13

26°

ZAPATUA

Eguraldiak egonkortze aldera egingo dau. Zerua nahiko garbi agertuko da. Goizean behe-lainoa sortuko da. Giro atsegina izango dogu, haizea indarrrik barik ibiliko da, eta tenperatura koska bat gorago helduko da.

16

26°

DOMEKA

17

23°

ASTELEHENA

18

26°

MARTITZENA

Gremioen gida



Iturgintza

Arriandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - beheko 3. etea
Sakelekoa: 94 681 56 54
Faxa: 94 681 51 55
lurretan

Baimendun
Instalatzaila

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMENTA ETA KONPONKETA - TI - SONIDUA - BIDEOKA - IRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIHOAK - SATELITE IRATZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telebista
Instalazioak
Okinak

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, beheko
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Eraikuntza

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Telatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldeak
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Arotzeria

EGUIA S.L.

AROZTEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabitza Kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Ubide iturgintza

198 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Barne Dekorazioa

a-metz
[barne]diseinua

Ibaizabal, 3A beheko, 1D
48200 Durango/ Bizkaia
T. 94 681 84 81
M. 600 267 373

Diseinua
Dekorazioa
Ideiak
Proiektuak - 3D
Legitimizazioak
Erreforma
Gremioen
koordinazioa
Altzariak
Olagarriak

www.a-metz.com

sagasta
ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

HEMEN AGERTU

GURA BADOZU

DEITU

94 621 79 02

KIROLAK >



Argazkia: Iban Gorriti

Durungaldeak kadete mailako nesken txirrindulari talde berria dauka: Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio taldea. Oraingoz lau txirrindulari dituzte eta laster taldea handitzea itxaroten dute. Iurretako Emakumeen Bira kirol elkarteak ibili da sukalde lana egiten, eta hainbat elkar-terren laguntza eta babesletza izan du; tartean, Durungaldeko Herri Komunikabideak-ena ere bai.

Taldera batu diren lau neskak honako hauek dira: Izaskun Abasolo igorreztarra (Arratia Ziklismo Elkartetik), Karina Aguilera Igorren bizi den brasildarra (Arratia Ziklismo Elkartetik), Ziortza Isasi elorriarra (Elorrio Txirrindulari Elkartetik) eta Aiala Amesti mallabitarra (Zaldibarko Lagun Arteak taldeak). Tal-

Kimu barriak bizikletan

deko ordezkaria Eneritz iturriagaetxebarria txirrindularia da.

Roberto Cuesta managerraren esanetan, aurtengo lehen denboraldian duten helburua "taldea finkatzea da". "Etorkizunera begirako lehenengo harria ipini dugu. Orain kadeteetako urte biak ditugu aurretik. Gure esperantza proiektuagaz jarraitzea da", azaldu du.

Hasi dira entrenatzen

Lau gaztetxoak dagoeneko hasi dira entrenatzen Berrizko belodromoan. Azaroan eta abenduan Anoetako belodromoko hainbat probatan parte hartuko dute. Era berean, abenduaren 26tik 30era Salamancan kontzentratuko den Bizkaiko selekziozko partaide izango dira. Buel-

Oraingoz lau txirrindulari dituzte, baina gehiago batzea espero dute

tan belodromoko lanari ekingo diote berriro, eta urtarrian Durangoko izotz pistan arituko dira entrenatzen, belaunak eta belaunburuak indartzeko helburuagaz.

Errepideari dagokionez, Euskaldun Sarian, Espainiako Kopako probetan (Segovian eta Madrilan) eta Bizkaiko beste hainbat lasterketatan parte hartuko dute. ■ J.D.

24 Saskibaloia Jaia ospatuko dute bihar

Bizkaiko Saskibaloia Federazioak Saskibaloia Jaia antolatu du biharko Landako kiroldegian. Askotariko ekintzez gainera, Bizkaia Bilbao Basketeko jokalariek etorriko dira

25 Errekorra parakaidismoan

Formazio librean Euskadiko errekorra ezarri dute 12 lagunek. Horietako hiru Durungaldekoak dira, eta euren esperientziaren berri kontatu digute asteen

Futbol taldeak prest baloia mugimenduan ipintzeko

Futbol eta areto-futbol liga gehienak asteburu honetan hasiko dira

Futbolean eta areto-futbolean hasteko falta ziren taldeek aste-buru honetan ekingo diote ligari. Bueltan dira ilusioa, esperantza, dezepzioa, poza... Kirolak eragin ditzakeen emozio guztiak. Futbolean eta Bigarren Erregio-

nalean Abadiño dugu ordezkari bakarra; Getxon jokatu dute Iturgitxiren aurka. Aurtengo sortu duten Hirugarren Erregionalean lau ordezkari ditugu. Horietako bik, Extremeñok eta Ezkurdik, derbia jokatu dute bihar.

Berriz Bk eta Elorriok kanpoan dute estreinakoa: Markinan lehenak, Sondikan bigarrenak. Emakumeen ligak urriaren erdian hasiko dituzte.

Areto-futbolean, iaz Goren Mailara igotzea lortu zuen Mallabia Bastidak Elorrieta Aero Link jasoko du etzi Zaldibarko kiroldegian. Lehen Erregionalean Abadiño Lagunen eta Elorrioko Bren arteko derbia dugu bihar. Presion Break-ek Bermeo jasoko du, eta Abadiño Gaztetxiek Bakio bisitatuko du. Bigarren Erregionala bi asteburu barru hasiko dute.

Mallabiak iaz Goren Mailara igotzea lortu eta gero, horri eustea du helburu aurten

Emakumeetan Durangoko Kulturalak Atxure Bakio hartuko du Landakon etzi, 12:00etan. Aurten sortu duten Kurutzia Ikastola taldeak, berriz, Leioa Maia taldearen kontra jokatu dute etxetik kanpora.

Azkenik, liga hasi dutenen artean, Sasikoak Sestaon jokatu du eta Elorriok etxean, Euskaldunaren kontra. ■ J.D.



Sasikoak bina berdindu zuen lehen jardunaldian. Judit Fernandez

Team Penning txapelketa irabazi dute gurek

Igor Egurrola mallabitarrek, Jesus Baseta berriztarrek eta Jon Fernández orconerarrak Espainiako Tem Penning Txapelketa irabazi dute taldeka. Punturik gehien batu dituzte Grausen (LLeida) eta Biescasen (Huesca) jokatuak jardunaldi bietan. Horrez gainera, Fernándezek Cattle Penning –banakakoa– modalitatean ere irabazi du. Egurrola bosgarren geratu da banakako saioan.

Olazar Txapelketa hasiko da, binaka eta lau t'erdian

XXII. Olazar Pilota Txapelketa hasiko dute datorren egunean, binaka (12 bikote) eta lau t'erdian (15 pilotari). Partiduak eguenero jokatu dituzte, 21:30ean hasita.

Lehenengo jardunaldirako lau t'erdiko hiru partidu antolatu dituzte. Eneko Perosanz berriztarrek Aurtenetxeren kontra jokatu du. Gainerako bi partiduak honako hauek dira: Arrieta-Atxotegi eta Mendiñueta-Jauregi.

DRT eta Elorriori heldu zaie benetako frog

Amaitu da aurrendenboraldia; Durangoko eta Elorrioko taldeek ligari ekingo diote

Errugbiko ligarik gehienak asteburu honetan hasiko dira. Ohorezko B mailan Durangolarduyaren gizonezkoen talde nagusiak Hernaniren kontra jokatu du, domekan, etxetik kanpora. Emakumeek –aurten Durango-Arrasate Ilarduya deitzen da taldea– ere kanpoan ekingo diote denboraldiari, Getxo- Artearen aurka.

Euskal Ligan Gizonezkoen B taldeak Arripausuetan jokatu du etzi, 12:00etan, Universidad Cantabriaren aurka. Maila berean, Elorriok Gernika Bren zelaia bisitatuko du.

DRTren kadete eta gazte mailako taldeek ere bihar (15:00etan eta 17:00etan) ekingo diote lanari; biek Ordizia izango dute arerio. ■ J.D.



Emakumeen taldea, Goienkalen egindako aurkezpenean. DRT

Unai Zamalloa
•Saskibaloietrenatzailea



Hasi da festa

Gure artean han eta hemen jaiak diren bitartean (Goienkalekoak, lurretan San Migelak...) saskibaloizaleontzat be hasi da festa. Gure talde batzuk aurreko asteburutik liga hasi berri daben bitartean, besteek aste honetan jokatu ditue denboraldiko lehenengo partiduak.

Emakumezkoen Lehenengo Mailan, Tabirakok, aurrendenboraldi irregularra izan ondoren –entrenatzaile aldaketa derrigortua eta lesinoak medio–, Irlandesasen aurka oso partidu erraza izan dau. Oso emaitza ona taldeak konfiantzaz eta, egoera barriaren aurrean, lasaitasunez ekiteko. Eguneroko lanean gorabehera handirik barik mantenduz eta beste taldeak aztertuz, denboraldi polita betetzeko aukera ezin hobean dago Durangoko taldea, Liga asko merkatu delako eta taldea berdintsua delako.

Gizonezkoetan, ordea, asteburu honetan hasiko da Liga. Tabirakok Zornotzak baino aurrendenboraldi hobea burutu dau. Gainera taldea aurreko urteetatik eratua izateak lana errazten dau. Baina oso partidu gatxa dauka lehenengoa: Easoren aurka, kanpoan. Hasiera ona bada, moralez eta indarrez beteko dau taldea.

Zornotzak barriz, taldea guztiz aldatu dau eta lesinoek zein fitxaketak berandu lotzeak ez dabe bape lagundu lana borobiltzen. Baina, talde oso konpentsatua, beteranoa eta indartsua daukagu eta, gainera, etxean ekingo deusagu. Beti legez, lerbekoak menperagatz izaten jarraitu behar dau.

Hasi da barruko kili-kilia...

Gaztetxo zein nagusi, etzi, Duatloi Herrikoian

Mugarra triatloi taldeak antolatuta, aurten laugarren aldia beteko du duatloiak

Domekan 4. Duatloi Herrikoian parte hartzeko aukera eskainiko du Mugarra triatloi taldeak. Kirol modalitate hori ezagutara emoteko asmoz, lau adin tarterko lasterketak antolatu dituzte.

Lehenengo 13-17 urte arteko gazteak irtengo dira Andra Marititik, 10:00etan. 11:00etan 8-12 urte arteko gazteen lasterketa hasiko dute eta 11:30ean, umetxoena.

Nagusiak 12:00etan abiatuko dira. Lehenengo lau kilometro egingo dituzte korrika. Bizikletan osatu beharreko 13 kilometroek Artabilla (mendiko pista Mendiolarantz), Abadiño eta Eguzkitzatik eramango ditu parte hartzaileak. Azkenik, beste kilometro bi lasterka egingo dituzte. Izena duatloia egunean bertan eman daiteke Andra Marin. ■ J.D.

1.500 gaztetxo espero dituzte Saskibaloia Jaian

Saskibaloia inguruko hamaika ekintza prestatu dituzte, biharko, Landakon

8 eta 16 urteko gaztetxoengan saskibaloizaleatasuna sustatzeko asmoz, Bizkaiko Saskibaloia Federazioak –laguntzaile ditu Tabirako eta Durangoko Udala– Saskibaloia Jaia antolatu du biharko, 10:00etatik 20:00etara, Landako Kiroldegian.

Ekintzetan parte hartzeko ez dago izenik eman beharrik. Esperientzia ere ez da beharrezkoa; edonork parte hartze-

ko moduko ekintzak prestatu dituzte. Puzgarriak ipiniko dituzte, eta Bizkaia Bilbao Basketeko jokalaria egongo dira bertan. Arratsaldean, baloiagaz malabareak egiten dituztenek Freestyle saioa eskainiko dute.

Horrez gainera, Tribasket txapelketa antolatu dute. Dagoeneko 70 talde baino gehiagok izena eman dutela adierazi dute antolatzaileek. ■ J.D.

“Datorren urtean errekor barria ezartzen ahaleginduko gara”

Eskualdeko hiru paraxutista dagoz Euskadiko errekorra lortu daben hamabien artean



Iñaki Jorge iurretarrak eta Gorka Agirre eta Imanol Egaña durangarrek 800 bat salto ditue hiruren artean. Iban Gorriti

Hegaldiko formazinoko Euskadiko errekorra ezarri dabe oraintsu 12 lagunek Katalunian, Empuriabravako Skydive aerodromoan. Horreetako hiru paraxutista Durangaldekoak dira: Iñaki Jorge, Gorka Agirre eta Imanol Egaña. 10 laguneko marka ipini eta hurrengo saltoan 12ra be heldu ziren.

Itxaroten zendueen marka ezarri eta hurrengo saltoan 12gaz marka hori apurtzea?

Gorka Agirre: Ni, behintzat, baikorra nintzen. 16 hautagai gengozen eta horreetako 10 lagunek menderatzen eben modalitatea. Beraz, lehenengo marka itxaroten neban; bigarrena ez hainbeste.

10 laguneko marka itxaroten genduen; 12koa ez hainbeste

Gorkak eta Iñakik bazeukien esperientzia, baina zu, Imanol, modalitate horretan barria zara. Zelan ibili zinen?

Imanol Egaña: Egia esanda, ni benetan arduratzen ninduen beste kontu bat zen: zelan arraio konponduko ginen hainbeste lagun hegazkinetik salto egiteko. Paraxuta zabaldu arteko denpora tarte minutu bat eskasekoa da, eta segundo bat galduz gero, erorketa askea metro horreek errekuperatu guran

joan leiteke. Kontrakoa be gertatu leiteke: lar hondoratzea. Zorionez, ondo konpondu ginen.

Zer irudi sortu zendueen airean?

Iñaki Jorge: Kanporantz handitzen zen izar bat. Hori baino irudi gaxagoak badagoz. Benetan gaxa ez zen irudia egitea, gu denok batzea eta modalitate honetan adituak ez direnek zelan erantzungo eben jakitean baino.

Zelakoa izan da preparazinoa?

G.A.: Preparazinoari jagokonez Felix Alvarez Castaño entrena-tzailearen lana azpimarratu gura dogu. Milaka salto egin ditu eta munduko errekor bitan parte hartu dau. Duda barik, parakaidismoan izenik handienetakoa da. Daukagun dena emon bado-gu, bera entrenatzaile dogulako

Benetako zailtasuna guk denok bat egitea zen

Noizko hurrengo errekorra?

G.A.: Okerrik ezean, datorren urtean barriro saiatuko gara, eta ezarritako marka malgutasunez hobetuko dogula uste dot.

Zelan zaletu zinien parakaidismoa?

I.E.: Betidanik egin gura izan dodan zer bat izan da. Orain 10 urte hasi nintzen; denpora batean itzi ostean, barriro hasi naz.

G.A.: Nik be baneukan gogoia, baina horri buruz dakien inor ezagutu ez eta, badakizu, kostatu egiten da erabakia hartzea; gimnasioan Imanol ezagutu neban arte. Harek emon eustan azkeneko bultzada.

I.J.: Nik Jacan ezagutu neban Gorka. Bati bestearen aurpegia ezagun egiten jakon, eta hara nondik, biak Durangaldekoak ginen!

Zelan sortu zen errekorra egiteko asmoa?

G.A.: Felix beraren ideia izan zen. Behin zera esan euskun: “Pentsatzen ipinita, euskaldun pilo baten irakasle izan naz. Zergaitik ez saiatu koadrila bat batzen eta Euskadiko errekorra ezartzen?”. Harrezkero lan itzela egin dau asmoak aurrera irteteko. Empuriabrava zentroan be erratzasun denak emon deus-kuez. Esker oneko gagoz.

Hauxe izan da Euskadiko lehenengo errekorra?

I.E.: Bai. Munduko errekorra 400ean dago, eta Europakoa 200ean. Marka horrekin alderatzerik ez daukagu, baina gure eremuan, gure mailan, hau da, gure errealitatean, marka txukuna dela uste dot. Guztira be, 30 paraxutista euskaldun gagoz, eta erdiak batu ginen.

G.A.: Profesionalek mila salto egiten ditue urtean. Esaterako, Felixek 12.000 salto ditu. Hori dena kontun hartu behar da. Horreei ordaindu egiten deute saltatzearren; guk, barritz, geuk ordaindu behar dogu; ez gitxi, gainera.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
Durangoko Kulturala - Basconia

Zapatuan, 17:00etan,
Tabiran

OHOREZKO MAILA

Berriz - Gurutzeta

Domekan, 11:30ean,
Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA

Elorrio - Umore Ona

Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeko - Ezkurdi

Zapatuan, 19:00etan,
Tabiran

ARETO FUTBOLA

OHOREZKO B MAILA

Elorrioko Buskantza - Euskalduna

Zapatuan, 17:45ean,
Elorrioko kiroldegian
EUSKAL LIGA

Sasikoa B - Iralabarri

Zapatuan, 19:00etan,
Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Mallabia Bastida - Elorrietako Aero Link

Domekan, 17:30ean,
Zaldibarko kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA

Abadiñoako Lagun - Elorrioko B

Zapatuan, 15:20an, Elorrioko
kiroldegian

Presion Break - Bermeo

Zapatuan, 17:00etan,
Berrizburu kiroldegian

SASKIBALOA

BIGARREN ERREGIONALA

Jula-Zaldia - Jesuitinas

Zapatuan, 16:30ean,
Zaldibarko kiroldegian

Zelan gogoratzen dozue egin zendueen lehenengo saltoa?

I.E.: Hor une bi dagoz. Tandemeko eta bakarkako lehenengo biderrak. Biak ederrak dira. Hotza gogoratzen dot, zarata, abiadura... eta, batez be, oheratu arte aurpegitik ezabatu ezin izan neban irribarrea.

I.J.: Topera disfrutatzen saiatu nintzen. Gogoan daukat lurrera heldu eta gero, ordu bi eman nituela jesarri aurretik.

G.A.: Garrasi itzelak bota nituen. Haxe zen emozinoak kanporatzeko aurkitu neban bidea. Etxean bideoa ikustean, barriro airean banengo lege sentitu neban. ■ J.D.



12 laguneko irudia osatuz ezarri eben errekorra.

AMALURRA>



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amarkomunazgoa



Plastikozko poltsak baztertze-ko saiakerak martxan dagoz

**Beste herrialde batzuen
ereduari jarraituz, Espainiak
plastikozko poltsen erabilera
debekatuko dau 2015erako**

**Kontsumitzaile bakotxak
urtean plastikozko 240 poltsa
erabiltzen ditu, batez beste;
%10 bakarrik birziklatzen da**

**Hego Euskal Herriko hainbat supermerkatu eta denda
poltsa horreen erabilera txikitze-ko neurriak hartzen dabilz**

Azkeneko urteotan, inguru-
mena hobetzea helburu
daben arauak onartzen
dabilz hainbat estatu, eta horree-
tariko batzuek hemen be eragina
izango dabe. Izan be, beste herrial-
de batzuen ereduari jarraituz,
Espainiar Estatuak plastikozko
poltsen erabilpena debekatuko
dau 2015erako. Legea indarre-
an egon ez arren, komertzio batzuk
hasi dira neurriak hartzen, beze-
roak aldaketara errazago egoki-
tu daitezzen.

Carrefour supermerkatua
izan da aitzindarietako bat. Irail
hasieratik ez dabe plastikozko
poltsarik banatzen, eta kontsu-
mitzaileek bi aukera ditue: behin
eta berriz erabiltzeko poltsak
hartzea, edo biodegradagarriak
direnak erostea, 5 zentimoan.

Eroski, bestalde, ekainean
hasi zen poltsa berrerabilgarriak

banatzen, oraindino betikoak be
banatzen dituen arren. Birzikla-
tutako plastikoagaz egindakoak
dira poltsa barriak, eta gitxi
gorabehera 50 biderrez erabil-
tze-ko balio dabe. Bezeroak 50
zentimoren truke eskuratu lei-
kez poltsa horreek, eta erabil-
tze-ko balio ez dabenean, beste
bat emoten jako supermerka-
tuan bertan.

Beste neurri bat be hartu
dau euskal kooperatibak. Erabil-
tzen ez den plastikozko poltsa
bakotxe-ko zentimo bat gitxiago
kobratzen jako bezeroari. Kutxa
bakotxari ezarri deusien siste-
ma informatikoak kalkulatzin
dau erositakoaren arabera zen-
bat poltsa aurreztu diren.

Lidl eta Dia supermerkatue-
tan kobratu egiten dabe plasti-
koko poltsengaitik, aspalditik.
Sabecok, bere aldetik, bi urte

daroaz ohialezko poltsak sal-
tzen, euro baten truke.

Kontsumoa

Kontsumitzaileen elkarteak
pozik agertu dira hartutako era-
baki barri honeengaitik, baina ez
dabe uste bezeroek bakarrik
egin behar dabenik esfortzua.
Izan be, Euskadiko Kontsumi-
tzaileen Antolakundearen ara-
bera, enpresek dirua aurreztuko
dabe neurri horregaz, eta beze-
roek ordaindu egin beharko
dabe kasu gehienetan.

Kontsumitzaile bakotxak
urtean plastikozko 240 poltsa
erabiltzen ditu batez beste, eta
horreetatik %10 bakarrik birzi-
klatzen da. Poltsa horreek 12
minutuko bizia daukie, eta 400
urte behar ditue desagiteko.
Ingurumenari kalte nabarmena
sortzen deusie, beraz.



IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna
edozein lan mota
egiteko prest,
edozein ordutegitan.
Esperentzia la
zerbitzari bez
umeein...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde
zaharreko etxe bat
alokagai. Guztiz
barriztatuta dago
eta hiru gela d
750 euro...

SALDU

Fun roller autoka-
rabana salgai.
2003 urtekoa. 54 km.
Motorra Fiat 2.8 JTD
127 zaldi. 24.
euro...

HARTU

Neska euskalduna
behar dogu 10 urte-
ko neska bati klase
partikularrak emateko (ingeles
beste irakasg
batzuk)...

BEREZIAK



Autoa konpartitzen
dut Gasteiztik
Otxandiora joateko,
astelehenetik ostegunera. 09:30
aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak.
Hilabete bateko
kuma oparitzen
dut. Arra da.
Oso polita.
...

e-mail: anboto@anboto.org
Tel.: 94 681 65 58

IRAGARKIAK



LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai

Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Durango. Filologoa behar da elkarte bat dinamizatu eta kudeatzeko. Derrigorra da lizentziatura edukitzea Euskal Filologian edo Enpresaritzan, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.644. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Elorrio. Etxeko enplegatua behar da. Derrigorra da esperientzia izatea, kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.791. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Abadiño. Ileapaintzailea behar da Matienan, asteburuetan egun erdiz lan egiteko. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.997. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Iurreta. Elektrikaria behar da tentsio baxuko instalazioak egiteko. Egun osoko lanaldia. Derrigorra da bi urteko esperientzia izatea, kotxeko karneta izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 7.027. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza zuzendaria behar da atzerrian sare komertzialen kudeaketa eta zabalpena egiteko. Talde komertziala gidatuko da. Derrigorra da hizkuntzak jakitea (ingelese, eta alemaniera edo frantsesa) eta marketing eta finantza ezagutzak izatea. Lidertza gaitasuna eskatzen da. Erreferentzia: 7.115. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Estetizista behar da. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Lanaldi osoa asteartetik larunbatera. Azaroan hasteko. Erreferentzia: 7.117. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINITZAK

Durango. Umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da. Irailean zehar 5 ordu goiz/arratsaldez eta urrian zehar 2 ordu arratsaldez. Tel.: 616 748 109

Neska euskalduna arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Ingeles maila ona. Tel.: 615 708 238

Esperientziadun emakume euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 680 509 532

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaindu zein klase partikularrak emateko prest. Tel.: 653 712 460

Elorrioko neska bat etxeetan ilea apaintzeko prest dago, astelehenetik ostiralera arratsaldez, eta zapatu goizetan. Tel.: 637 315 085 (Iraia)

Neska gaztea haurrak zaintzeko eta arratsaldetan edozein lanetan orduka aritzeko eskaintzen da. Tel.: 615 716 232

Neska euskalduna portalak eta tabernak (gazez) garbitzeko prest. Tel.: 664 142 904

Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Aste barruan gazez. Tel.: 650 610 194

Gizon heldua eta esperientziaduna nagusiak edo gutxitu psikikoak zaintzeko prest. Laguntzaile psikiatriko teknika naiz. Tel.: 636 025 493

Magisteritza ikasitako neska esperientziaduna klase partikularrak eman, haurrak zaindu, eskolara eraman edo etxeko lanak egiteko prest. Kotxea daukat. Euskalduna. Tel.: 615 735 385

Esperientziadun neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest dago. Baita beste edozein lan egiteko be. Tel.: 690 776 431

Elorrio. Irailetik aurrera, arratsaldez ume txikiren bat zaintzeko prest nago. Euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna naiz. Tel.: 635 704 512

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Durango. Pisua salgai Jesuiten inguruan. 3 gela, 2 komun, eskatza eta egongela. Balkoi bi ditu. Garajea eta barbakoa ere bai. Tel.: 618 555 452

Elorrio. Atiko berria salgai. 50 m2. Logela, sukaldea, egongela, komuna eta igogailuarekin. Oso polita. Alokatzeko aukera. Tel.: 606 043 835

Zaldibar. Pisua salgai. 75 m2 ditu, 3 logela, egongela eta ganbara ere badu. Prezio ona. Tel.: 655 739 792

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisua alokagai Zelaian. Tel.: 699 295 914

Elorrio. Pisua alokagai. Tel.: 637 022 444

Txalet txikia urte osorako alokagai Ramalesen, Kantabrian. Tel.: 653 733 457

Durango. Pisua alokagai Kalebarrian. Logela bi. Hirugarren solairua, igogailuagaz. Eraikin berria. Urriaren 1etik aurrera. Tel.: 686 989 963 edo 696 163 532

Zaldibar. Pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel.: 655 739 792

Zaldibar. Logela bat dut alokagai. Tel.: 655 739 792

ERRENTAN HARTU

Durango. Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil. Tel.: 605 749 443

KONPARTITU

Durango. Logela alokagai Durango erdialdean dagoen etxe berri batean. E-mail: lagunok@gmail.com

Elorrio. Neska bat behar da pisua konpartitzeko. Tel.: 634 462 503

MOTORRA

SALGAI

BMW 318 IT salgai. 98. urtekoa. Gasolina. 143 zaldi. Pack M. 171.000 Km. 4.500 euro, negoziagarria. Tel.: 662 040 493

EROSI

Erabilitako karabana erosiko nuke. Txikia eta merkea. Tel.: 94 621 82 88 (Deitu gaueko 22:00etatik aurrera)

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Iurreta. Garajea alokagai. Itxita. Tel.: 94 681 60 27

Durango. Garaje itxia alokagai Landako inguruan. Tel.: 652 865 780

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

Abadiño. Garajea alokagai Matienan, Pinako plazaren azpian. Tel.: 94 681 70 67

Elorrio. Garajea alokagai Labakuan. Tel.: 680 597 379.

Abadiño. Muntzaratz auzoan ileapaindegia traspasatzen da. Tel.: 662 554 077

IRAKASKUNTZA

EMAN

DBHra arteko klase partikularrak ematen ditut. Italiara eta ingelese ere bai. Tel.: 651 709 327

Matematikako klase partikularrak ematen dira. Elorrioren edo inguruetan. Tel.: 636 025 493

Lizentziatua laguntza klaseak emateko prest, bakarka. LH, DBH eta Batxilergoa. Tel.: 686 810 203

HARTU

Ingeleseko maisua behar da bakarkako klase partikularrak emateko. Tel.: 615 007 216

Italiara klase partikularrak jaso gura ditut. Durangon edo Durangaldean. Tel.: 620 218 271

ANIMALIAK

SALGAI

Ahuntzak salgai. Azpigorri arrazakoak. Tel.: 94 621 82 57

Spaniar Breton arrazako txakurra salgai. Hiru hilabete eta erdikoa. Bakuna guztiak hartuta eta ehizarako prest. Tel.: 94 658 33 53

Lau mozal angloarabe eta gurutzatu bat salgai. Urte bat eta bi bitartean. Papelekin. Tel.: 677 602 160

OPARI

Artzain txakur emea oparitzen dut. Hiru hilabetekoa. Tel.: 616 936 351

LANA

ESKAERAK

Durango. Neska gazte euskalduna behar da arropa denda batean lan egiteko. Bidali kurrikuluma argazkiarekin helbide honetara. E-mail: dendadurango@gmail.com

Andre euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 94 622 50 48

Abadiño. Ileapaindegia batean lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 94 681 78 80

Elorrio. Pertsona bat behar da garbiketa orokorra egiteko enpresa batean. Tel.: 94 658 44 15

Sukaldari laguntzailea behar da. Asteburuetan jai. Tel.: 666 484 210

Durango. Goizetan (7.30-9.00) umea ikastolara eramateko neska edo emakume euskaldun baten bila nabil. Tel.: 653 012 011

Zaldibar. Gazteleku (ostiraletik igandera) eta Zapatublairako(zapatu bat bai eta beste ez) hezitzaile bila gabilta. Beharrezkoa da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz ondo jakitea eta haur nahiz gazteekin jarduteko trebea izan eta gogoa edukitzea. E-mail: haurrak@txatxilipurdi.com Tel.: 943 79 54 46.

Durango. Umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da. Irailean zehar 5 ordu goiz/arratsaldez eta urrian zehar 2 ordu arratsaldez. Tel.: 616 748 109

Pertsona bat behar da umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. 07:30etik 11:00etara. Kotxea izatea derrigorra da. Tel.: 660 723 602

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenurako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruen informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du euskaraz lan egiteko. Derrigorra da Kazetaritzan lizentziatua izatea, EGA izatea, Quarkxpress eta Photoshop programak menderatzea eta Durangaldean bizitzea. 8 orduko lanaldia, 2009ko urrian hasi eta 2010eko iraila arteko kontratuarekin. Erreferentzia: 6.555. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.



BESTEAK

SALGAI

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Arkoizozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Etxeko kanpaia salgai. Isla estilokoa. Ia-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa. Tel.: 94 622 56 73

Play Station 3 salgai. 80 GB. Ia erabili barik. Jokoak eta mandoak oparitzen ditut. 225 euro. Tel.: 606 307 439

Karreratako bizikleta eta ziklo kroseko bizikleta salgai. Tel.: 648 260 880 (Maite)

Erabilitako CDak salgai. 400 inguru dira. Txollo ona da, benetan Tel.: 606 266 244

Bizikleta koadroa salgai. Berria da, Goka Knife modeloa. Tel.: 686 651 382

Neopreno laburra salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S"~155cm. Tel.: 658 738 734

BEREZIAK

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurilaritza enregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

Athleticen bazkide txartela alokagai denboraldi osorako. Tel.: 679 058 167

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar. Tel.: 636 847 262

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzea nahi badozu deitu hurrengo zenbaki honetara: Tel.: 605 744 945

Ekitaldi ahaztezin bat izan nahi baduzu girotu ezazu zeure gustuko musikarekin. Biotxe Durangoko biolontxelo eta biolin bikotea da. Orkestretan jotzen hainbat urte egin eta gero, errepertorio zabala dugu aukeran ezkontza erlijioso zein zibil, inaugurazio eta ekitaldiak girotzeko. Durangarrak izan arren, Euskadi osoan zehar mugitu gaitzek.e-posta:biotxe@hotmail.com Tel.: 635 746 176 (Maialen)

INMOBILIARIAK



ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak salgai.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Errentxu: Adosatua eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta)
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Herriko Gudari kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantoki, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparraguirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, sukaldea, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Sasikoa: Halla, egongela, sukalde-jantokia jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara. Jantzia.
- Tronperri kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Jantzia.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldea jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.



ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 230.000+BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+BEZ
- 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Askatasun kalea: 4 logela, egongela, sukaldea eskegitokiarekin eta 2 komun. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.160 m2-ko lursaila.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durango: Ermodo kalean. 90 m2.
- Durangaldea: Baserri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta...
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Alluitz: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Prezio ona.
- Mañaria: Etxebizitza erdi berria bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Ezkurd: 130 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. Izugarria.
- Landako: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 2 terraza eta garajea. Ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela. Ikuspegi zoragarriak.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona ezinduendako aproposak.
- San Inazio: 90 m2. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Ermodo: 90 m2.
- Madalena: 2 edo 3 logelako etxebizitzak.
- Herriko Gudarien kalean: 135 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. TERRAZA handia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Landako-Txibitena: 2 eta 3 logela.
- Txibitenan: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garaje aeta trastelekua.



ERAIKUNTZA BERRIAK

- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin.Guztiz jantziak. 138.000 € -tik aurrera.
- Ermodo kalean: Eraikuntza berria. 105 m2. Guztiz kanpora ematen du. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabiran: Promozio berria. Luxuzko etxebizitzak.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- Atxondo: Baserria. 210.000 € .
- San Fausto: 2. solairua. 143.000 € .
- Durango: Bizitzen sartzeko prest. 2 logela eta egongela. 156.300 € .
- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia.162.000 €
- Urkiagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 179.000 € .
- Aramotz: 3 logela, egongela. 202.500 € .
- Berriz: Guztiz berriztuta. 154.500 € .
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Tabira / Arriluzea: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
- Franzisko Ibarra: 3 logela eta 2 komun. Aukera ona.
- Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
- Ermodo: 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko prest.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Terraza. 2 logela.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzen sartzeko prest.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.
- Astxiki: 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Estreinatzeko. Eguzkitsua.
- Antso Eztegi: 3 logela eta komuna. Aukera ona.
- Murueta Torren: 90 m2. Berria. 3 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Aukera ona.
- Durango: Txaleta. Estreinatzeko. Lorategiarekin. IURRETA
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 € .
- Bidebarrieta: 70 m2. 3 logela. Terraza.
- Bixente Kapanaga: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Baserria: Guztiz berria. 3 solairu. ABADIÑO
- Feria Leku: 90 m2. 3 logela eta egongela.
- Zeletabe: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Matiena: 3 logela eta egongela. 180.300 € .
- Matiena: Laubideta kalea. Apartamentua. Garaje aeta trasteleku handia.
- Txaleta: Bifamiliarra. Lursailarekin. ELORRIO
- 120 m2. Estreinatzeko. 336.000 € .
- Iurreta: Mallabiena. 400 m2. Berria.

PABILIOIAK SALGAI

- Matiena: Berria. 400 m2. 10 m2-ko altuera. (Eroski ondoan).



ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 € -tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisol: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Ia berria. Estreinatzeko.

ATXONDO

- 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garajea. Berria estreinatzeko. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.

ELORRIO

- Jara! de Bedoya. 240 m2-ko txaleta eta 200 m2-ko lorategia. Garaje bikoitza, txokoa, sukalde eta egongela handiak, 4 komun, 4 logela bikoitz eta terraza.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

	Musu zapi	▼	Modu hartako	▼	Korora dutenak
	Esferak		Loratuak		
		➤		▼	▼
	Pisu unitate	➤			
	Galantasune z				
Pisu unitate	▼	Nafarroako udalerria	➤	▼	
Mekanikari dagokio		Bizkaieraz, lehengusu			
➤		▼			
* Irudiko perretxikoa	➤				
Lapurdiko herria					
➤					500
					Mila
Zangoaren atal	➤		Arrantza tresna	➤	▼
Zilarra			... egin, hobetu		
➤		Barrabas	➤	▼	
		Neurri			
Alemaniko ibaia	➤	▼			Musika nota
Euskadi					Zizare
➤			Debekatutak o alderdi	➤	▼
			Argiaren erdian		
Pl, gai erretxinatsu	➤	▼			●
Ezin okerrago					●
➤					

SUDOKU >

1			7	9	4	
		3	5		7	6
7	6		3	4		2
8			3	5	9	
9	5		8	1		
	2		9			
1	4				3	5
2	7		5	3	9	
6	5		2			8

2	9	3				
		5	8		7	6
7						
	9				7	
1						
			4	2	5	3
8		5			6	4
	4		3	8	2	
			9	5		

7	1	8	5	6	2	3	4	9	7
6	8	9	7	4	1	3	5	2	6
5	4	1	6	2	7	8	3	9	5
2	1	5	8	4	7	3	6	9	2
6	3	9	7	6	4	2	1	5	8
4	9	3	5	1	7	6	8	2	4
3	5	2	1	4	2	5	3	6	7
8	7	6	5	3	1	4	2	9	7
9	4	2	7	1	8	5	3	6	2
1	8	5	3	6	2	7	4	9	1

●	O	R	V	G	N	O	D	
●	K	A	R	R	I	M	●	
K	V	H	E	●	E	V	E	
V	L	●	N	I	H	R	●	
N	I	K	O	K	●	G	A	
U	M	V	●	N	I	O	●	
D	●	U	S	V	S	T	I	
V	O	L	E	T	U	K	●	
O	K	I	N	A	K	E	K	
R	G	A	L	V	G	●	H	●
O	L	I	K	●				
K	O	L	A	K	●	B	O	
●	H	●	M	●				

HOROSKOPOA >



Aries

marxoak 21 - apirilak 20

Musika hain tristea entzunda, normala da zu be tristuraz betetzea. Anboto Irratiko musikak alaituko deutsu eguna!



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Noiz aldatu behar dozuz galtzak? Zulotuta dagoz, eta ez da itxura onekoa! Arduratu zaitez gehiago.



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Maitasunak nobedadeak ekarriko deutsuz datozen egunetan. Konbentzituta bazagoz, ez itzi tren hori pasatzen.



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Beti zabilz esaten pikantea ezin dozula jan, baina gero tranpan jausten zara. Gose hori kontrolatu beharko zeunke...



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Ajea jente askok izaten dau. Baina, pentsatu al dozu zureak zergaitik etorzen ete diren? Zaindu hobeto zure burua!



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Noiz joan zara azkenekoz okulista-rengana? Aste honetan egizu errebisinoa. Hainbeste telebista ikusita, normala da...



Libra

irailak 24 - urriak 23

Bakotxa den modukoa da. Ezin dozuz zure ingurukoak zeure eritzi berbereko bihurtu. Entzun gehiago besteen esanak.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Itzi sudokauk albo batera, eta joan gurutzegramara, hori errazagoa egingo jatzu-eta. Denporapasak onerako dira, ez burua apurtzeko...



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Zure barruko suak suhiltzaile batek be ezin ditu amatatu! Zer daukazu, bada, buruan? Beste zeozertan pentsatzea be ez dago txarto.



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Behin txarto berba egin deusulako ez pentsatu gorroto zaituenik. Denok izaten doguz egun ilunak.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Ordenagailua barik, zu zeu ordenatzeko tresnaren bat behar dozu. Ez dozu aurkituko, tamalez, informatika dendetan.



Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Bizitza honetan bakotzak bere norabidea finkatu behar dau. Ezin da egon etorri leitekezen sentsazioen zain.

ESKELA >



Oskar Petite Guenaga

"Ez zaitugu inoiz ahaztuko
Beti gure bihotzean"



Zure lagunak

Abadiñon, 2009ko irailaren 29an

ZORION AGURRAK >



Paule Ortiz de Apodakak
urte bat egingo dau urriaren 7an. Zorionak, laztana. Mosu handi bat, etxekoen partez.



Atzo Urriaren 1ean Irati Areitio Sopelanak 8 urte egin zituen. Zorionak gure printzesari, Garaziren, etxekoen eta lagunen partez.



Aitita Angelek gaur urteak egingo ditu. Zorionak eta besarkada bat, Maialenen eta Pauleren partez. Egun zoragarria pasatu daizula.



Zorionak Oroitz de Prada Amesti! Ama, amama Begoña, Endika eta Berrizkoen partez.



Goretti eta Joxe, argazkiko bikote sinpatiko hau, urriaren 3an ezkonduko jaku Urkiolan. Gero, kruzero baten joango dira eta Durangoko jaiak galduko ditue, baina pena handirik barik. Zorionak eta ondo pasatu!

zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta

EUSKO LABEL >

Eztia eta euskal esnea: erraz uztartu daitekezen goi-mailako produktuak



Bi produktu honeen kalitatea zaintzen dau Eusko Labellek.

Euskal Esnea eta Eztia edozein sasoiaren osasuntsuak diren arren, katarroei aurre egiteko dira oso aproposak.

Euskal Esnea

Eusko Label markaren pean merkaturatzen den esnea Euskadiko ustiatagirik onenetatik dator, eta indarrean dagoen Europako araudiak exijitzen duena baino kalitate-maila altuagoa dauka.

Esne gordinari ultrapasteurizazio deituriko prozesu termikoa ezartzen jako, produktuak elikaduraren nahiz zapoaren ezaugarriak gorde daizen, bitamina eta aminoazido nagusiei eutsita.

Bere ezaugarri nutrizionalak direla eta, behi-esnea elikagai osatuenetarikoa da.

Behi-esneak kalitate oneneko proteinak daukaz. Oso aberatsa da kaltzioan, B taldeko bitaminetan eta, neurri txikiagoan, A, D eta E bitaminetan. Substantzia horreek oso garrantzitsuak dira giza gorputzaren garapenerako eta hezurren ligadura saihesteko. Kaltzio asko daukanez, esnea

kontsumitzea oso onuragarria da pertsona guztientzat. Bereziki gomendagarria da haurrentzat, haurdun dagoen emakumeentzat eta adineko pertsonentzat.

Eztia

Eusko Labela daukien eztiak gordinak, freskoak, kalitate eta purutasun handikoak dira, jatorri botanikoaren arabera ezti mota guztien kasuan (lore-eztia, akazia-eztia, txilar-eztia, basoko eztia...). Ezti horreei buruzko araudia Europako araudi zorrotzenetakoa da. Pasteurizazio-prozesurik bako ezti gordinak izanik, ezaugarri biologiko eta elikatzailerik guztiak gordetzen ditue.

Elikadura-propietateez gainera, eztiak osasunarentzako oso onuragarriak diren beste ezaugarri batzuk be badaukaz: gibelaren funtzioak dinamizatzen eta indartzen ditu, bihotza suspertzen dau eta hesteen funtzioak hobetzen ditu. Efektu lasaigarria dauka, eta oheratzerakoan hartuta lo egiten laguntzen dau. Gainera, propietate antiseptikoak daukaz eta eztarriko minarentzat oso egokia da.

BEXAMEL SALTSA**OSAGAIK:**

- Eusko Labela duen litro bat esne
- 80 g gurin
- 60 g irin
- Gatza

Su eztian berotuko dogu esnea eltze batean edo mikrouhinetan, ontzi batean. Kazola txiki batean, edo mikrouhinetarako ontzi batean, urtuko dogu gero gurina; irina gehitu eta biraka nahastuko dogu guztia, ondo batu arte. Su ertainean egosiko dogu nahastura, 5 bat minutuan. Ezti-ezti, kolorerik hartu ez daian. Esnea isuriko ondoren, irin eta gurin nahasturaren gainean: bizkor joko dogu guztia koilara edo metalezko hagaxka batez. Astiro egingo dogu lan, pikorrik osatu ez daiten, eta bexamela leun-leun itxuratu daiten. Irakin arinean edukiko dogu kazola, gitxienez beste 10 minutuan, itsasten itzi barik. Esnea erantsiko dogu amaitzean, bexamela lodiegi dagoela ikusten badogu. On egin!

ARDAOAREN NEGARRA "Mahasti zaharrak"

Mikel Garaizabal
Enologoa

Normalean, mahastia zenbat eta zaharragoa, orduan eta uzta hobe ematen dau; hau dela-eta, mahatsak prezio garestiagoan ordaintzen da plus hori konpentsatu guran. Baina "zaharragoa berdin ardao hobe" formula ez da beti egokia izaten. Mahastia noiz den zaharra finkatzea oso erlatiboa da: laborantza sistemaren arabera, mikroklimaren arabera, luraren fertilizazioaren arabera... baina, esan geinke, 30 urtetik aurrera hasi gaitekezela mahastia zahartzat hartzen. Mahasti zaharrak hobeak direla esateko arrazoi nagusiak honako honeek izan daitezke: sustrai luzeagoak eta sakonak daukiez, eta horri esker errazago egiten deusez aurre klimaren gorabeheri, adibidez lehorte garaietan; urteak joan ahala, tarteko ekoizpenen arteko oreka sortzen da, eta horrela heldutasun puntua orekatzeaz gainera autoerregulatzen doa, erreserba gehiago mantentzeko erraztasun handiagoa daukie edo mahats gitxiago eta ale txikiagoak ekoizten ditue. Hau guztia dela-eta, kalitateko konpostuak kontzentratu egiten dira. Azken finean, oro har, mahastia zenbat eta zaharrago orduan eta kalitate hobe eta kantitate gitxiago ekoizten dela esan geinke.

Eusko Labela: ona den seinale

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

Abadiño

- PINILLA HARATEGIA
- TRANABARREN, 29 MATIENA

Zaldibar

- GALLASTEGI HARATEGIA
- ZALDUASOLO PLAZA, 8

Otxandio

- GAZTANETA HARATEGIA
- ARTEKALE, 25

Durango

- GALLASTEGI HARATEGIA
- ANTZO ESTEGIZ KALEA, 1

Iñaki

- IÑAKI HARATEGIA
- SASIKOA KALEA, 10

Oka

- OKA HARATEGIA
- ANDRA MARI, 3

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

hile honetako irabazlea:

Martin Gorostiza
(Durango)



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 Ezti, Idiazabal gazta, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Enixakako Ardoa", botella 1 Arabar Enixakako Olla Birjina, Txakolinazko bonbol-kuboa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bilidatza edo Euskal Baserriko Oritasunaz trukatzeko.

AKUILUAN

■ Jone Guenetxea ■ Argazkia: Ana Dominguez

LAUHORTZA



Jon Artza
Soziologoa

"lurretan beti egon eta egongo dira inguruetako dantzari onenak"

'Urrijena'-k lehengo eta oraingo dantzariak batuko ditu urriaren 11n lurretako plazan

Dantzarien katea ez da eten lurretan. Urteek aurrera egin arren, dantzari sena izaten jarraitzen dabe herrian. Adin guztietako dantzariak Urrijenan bilduko dira urriaren 11n. Lehenengo bazkaritik hiru hamarkada igaro direnez, 60 urtetik gorako dantzari omenaldia eskainiko deusee. Jesus Mari Etxanizek aurten ezingo dau dantzan egin, baina dantzari arropak prest daukaz gainerako dantzarien ondoan emozinoz betetako une horreek bizitzeko. Amatzako baserrian topatu dogu, purua ahoan.

Omenaldiagaz pozik?

Prest daukadaz dantzari jantziak, txapel gorri eta guzti. Dantzan ezingo dodan egin arren, lurretako plazara ikus-tera joango naz ilobagaz, eta ondorengo bazkarira be bai.

Dantzan ez dozu egingo, baina entseguren bat ikusi dozu.

Lehenengo dantzaldia zelan pres-

tatzen dabilzen ikustera joan nintzen, eta horrek be ilusino handia egineustan. Lehengo taldeko batzuk parte hartuko dabe.

San Migeletako saioa be ikusizenduen.

Jaietako saioa ikusi neban, eta ondoren ilobagaz bazkaltzera joan nintzen. Dantzariak ondo ikusi nituen. Kategoria handiko taldea da. Lehengoak be onak ginen gero! (barrezka).

Nor zen zuen taldeko presidentatzailea?

Juan Bikandi izan zen geure maisua. Batzuetan bronka bota eta serio jartzen jakun.

Noiz hasizinen dantzan ikasten?
Gazterik, 17 urtegaz. Bikandik berak erakutsi euskun *Dantzari dantza*.

Erraz ikasi zenduen dantzan?
Ez jatan hainbeste kostatu. Belarri ona neukan.

Nor zen txistularia?
Urrutia txistularia etortzen zen taldeagaz.

Non elkartzen zinien dantzan egiteko?

Inoiz arbolaperen baten be bai. Jefeak esaten euskun non gelditu. Abadetxean be elkartzen ginen.

Non egiten zendueen dantzan?

Batez be, hemen inguruan. Santutxuko saioa gogoan daukat. Dantzan egin eta gero, sokatiran jardun genduen, baita kopa irabazi be. Talde gogorra joan ginen.

Zer da lurretako dantzari izatea?

Gauza polita da

niretzat. Ilusino handia izaten dogu.

Kanpoan dantzan egin dozue?
Madrilera joan ginen, El Pardon Francon aurrean dantza egitera. Gero, La Casa de la Lolara joan ginen zeozer hartzera.

Dantzari onak zer behar dau?
Ilusinoa izan behar dau. Entsegutara behar den moduan joatea be garrantzitsua da. Halan be, denak ez dira onak. Banaka bat baino ez.

Behin dantzan eginda, jan-edianik ez jatzuen faltako.

Ederto emon euskuen behin jaten Mendizabalenean. Mendizabal txikiak ez zekien gindoazenik. Bera be dantzari izandakoa zen. Entrenadorea Mendizabalenean beharrean zebilenez, etxera gonbidatu ginduezen haren kanpoko ilobek dantza saioa ikusi zeien.

Oraingo belaunaldiko dantzari- ren bat nabarmenduko zeunke?
Iñaki Jaio aitaturko neuke. Elegantea da. Zuzen egiten dau dantzan. Bere lekuan.

Dantzarien harrobiaz zelan dago?
Lurretan beti egon dira eta egongo dira ingurukoetako dantzari onenak. Hamabost talde batuko dira *Urrijena*. Dantzarien kateak segitu egingo dau.



Jesus Mari Etxaniz

lurretarra

'Urrijena'-n omenduko dabe

Trenetik

Doi-doi iritsi naiz gaur. Egunkaria erosteko betarik ez, eta esku hutsik sartu naiz trenetan. Horrelakoetan egin ohi dudanez leihotik begiratzen hasi naiz. Urteetan ibilbide bera edo ia bera egiten dudan arren, gustuko dut noizean behin trenbidetik haratago ko paisaietan galtzea.

Arreta erakarri didan lehenengo gauza obren ugaltzea izan da; beste trenera erakitzeko lanak. Tren azkarra, kalte-ordainak denok jasanango baditugu ere, gutxi batzuen probetxurako izango dena. Ondoren ibaiari begira geratu natzaio; lasai doa, nahiko garbi. Erreka bazterretan zuhaitz ilarak, jadanik udazkeneko arropak jaten. Zuhaitzen adarretan, hegazti zenbait; hauek ere ibaiari so.

Zornotza aurrean, zuhaitz-segideketen bategin eta lautada zabal bati bide ematen diote. Noizbait, duela mende asko, nafarrak izan ginen lekuko. Ibaiaren ibilbidea jarraituz, Ospitaleko geroalekura iritsi gara. Bertan jaitsi dira larre, zuhaitz eta soroak. Bertan jaitsi dira ere euskara zaharrak. Tunela pasa eta hurrengo geltokian, fabrika eta porlanezko eraikin handiekin batera, euskara eta erdara berriak izango dira. Bagoian era askotariko jendea ikusten da orain. Aniztasun horretan murgildurik, Nerbioi eta Ibaizabal ibaiek ere, beraien urak nahastu eta besarkada bat emanez, heriorako geratzen zaien ibilbide apurra elkarrekin egingo dute. Handik gutxira, ibaiak sexua aldatu eta itsasadar bihurtzen da.

Nire pentsamenduetan murgildurik nabilela, ondo-koak besoan kolpe bat eman dit. Iritsi gara. Bertan Bilbo.

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

CAFES **LA TOSTADORA**

Andramari kalea (DURANGO) - Tlf.: 946 81 48 36